

Par Benjamin le Porche  
aux bons soins de "L'Espresso"

---

A remettre à Mr l'Abbé Lafitte  
professeur au petit séminaire

Ustaritz

NARBONNE (?)

Nihil obstat

Baiona die 19 Maji 1941

A. Larnalde

Censor

Imprimatur

Baiona die 19 Maji 1941

P. Dagum *scripsit*  
m. g.

## Ebanjelioak

Lau Ebanjelio badire, san Mathiuk, san Markok,  
san Lukek, eta Jon Doni Joanik eginak. Baiman  
lau saindu horiek ez dute eman boren Eban-  
jelioetan Jinkoak emanarazi diotena baizik. Beraz  
lau Ebanjelioak bordin eta oso osoan Jinkoaren  
hitza dire. Badi dezagun ala san Mathiuren,  
ala san Marken, ala san Lukon, ala Jon Doni  
Joaniren Ebanjelioa, beti Jinkoaren hitza, beti  
Jinkoa bera dugu adituzen.

Bada, meza guzietan, aphezak irakurtzen dute  
bi Ebanjelio zati: bat meza hastititik liburu  
aldatzen denean; bertzea, mezaren akabotuzan.  
Lehenberik irakurtua den hura usaiatz ditzu-  
da: Ebanjelioa; bertzerentzat erraten da: azken  
ebanjelioa.

Hainitz on baditake guresten chaitzat ere  
aphezarekin batean Ebanjelio zati hain irakurtu-  
ezen, zer daitake arimarentzat Jinkoaren hitza  
baino hobirik? Zer hain onik? Eta horra  
zertako hemon egari diren eskuaraz Ebanjelio  
andana bat.

## Ebanjelioak

Lau Ebanjelio badire, san Mathiuk, san Markok, san Lukek, eta Jon Joni Joanik eginak. Baina lau saindu horiek ez dute eman beren Ebanjelioetan Jinkoak emanarazi distena baizik. Beraz lau Ebanjelioak bardin eta oso osoan Jinkoaren hitza dire. Hori deragun ala san Mathiuren, ala san Marken, ala san Luken, ala Jon Joni Joaniren Ebanjelioa, beti Jinkoaren hitza, beti Jinkoa bera dugu aditzen.

Bada, meza guzietan, apkezak irakurtzen dituzte Ebanjelio zati: bat meza hastetsutik, liburua aldatzen denean; bertzea, mezaren akabontzan. Lehenberikorik irakurtua den hura usaiaz deitzen da: Ebanjelioa; bertzearentzat erraten da: azken ebanjelioa.

Hainitz on bailitake gristino choientzat ere apkezarekin batean Ebanjelio zati heien irakurtzen diren, zer daitake arimarentzat Jinkoaren hitza baino hobetik? Zer hain onik? Eta horra zertako hemen ezarri diren eskuaraz ebanjelio andana bat.

Hemen aurkitzen dire igande eta phesta-buru guzietako ebanjelioak, bai eta beti igandearrekin egiten diren phesta guzietakoak. Bertzalde, igandearrekin eror baititake ebanjelio berezirik ez duen saildu baten phesta, hemen emanak dire saildu nota guzientzat, ala martir, ala birjina, ala bertze, irakurtzen diren ebanjelioak. Azkenekotz, giritimo oneri labet baitzaite egun berezi batzue, nola Bertheberiz, Ganderailuz, Ortzegun Saizduz, megarren entzutea, egun he-tako ebanjelioak ere hemen aurkitzen dire; eta heien ondostik, ezkont-mezako eta hilen meze-tako ebanjelioak.

Hemen aurkitzen diren ebanjeliotarik asko beti mezako lehen ebanjeliotzat irakurtzen dire, asko beti azkenekotzat; bertze batzu aldi, batzuetan lehenekotzat, eta batzuetan azkene-kotzat.

Gurutzetan bat + ezarria da beti lehen ebanjelio direnen hastean; ezarriak dire bi gurutze ++ azken ebanjelio direnetan; eta gurutzarik gabekoak dire bai lehen bai azken ebanjelio izan daitezkenak, nola gerta.

Bertzalde nola, erran den bezala, Ebanjelioa baidakarkete lau Saiinduen liburuak, ebanjelio bakotcharen hastean emana da zoin saiinduen liburutik eta zoin kapitulutik hastua den ebanjelio hura; Saiinduaren izenaren ondotik den chifreak azagutarazten du kapitulua.

Igandetako Ebanjelioak

+ Abendoko lehen igandean

San Luke, XXI

Jesusek erran zioten bere dizipulueri: Ghusgarriak izanen dire iguzkian, eta hitargian, eta izanetan; eta lurrean jonde guziak lastuko dire, itsasoaren eta ubinen orro izigarraren gatik. Gizonak izialduraz ibartuko dire, munduari zer gertatu behar zuion beha; ezen zerustako indarrak kordakatuak izanen dire. Eta orduan ikusiko dute gizonaren semea hedoi quinean heldu toltre eta distradura handirekin. Bada horiek gertatzen hasiko direnean, beha zague, eta goiti zatzue buruak, zeren hurbiltzen hari baita zuen

erospena. Eta erran zioten konfharantza: Ikus-  
atzue fikoko ondea eta arbola guziak. Beteratzen  
dute bada kanporat fruitua, bada kizue hurbil  
dela uda. Halaaber zuek, horiek gertatzen ikus-  
tearekin, jakin zague hurbil dela Jimkoaren  
erresuma. Egiaz derratzen, ez dela gizaldek hau  
iraganen, non ez diren horiek oro gertatzen.  
Zeru horrak iraganen dire; baina ene hitzak  
ez dire iraganen.

Abendoko bigarren igandean

San Mathin, XI

Nola Joanesek entzun baitzuten presondegian  
Kristoren egintzak, igorri zizkan bere dizipu-  
lutarik bira, erraterat: Zu zare ethortzekoa dena,  
ala bertze bat iguririkiren dugu? Eta Jesussek  
ihardetsi zioten, erranez: Zoazte, erroze Joanese  
zer duzaen aditu eta ikusi: Itsuak ikusten  
dute, mainguak badabiltra, lepra dunak gar-  
bituak dire, etxhorrek aditzen dute, hilak piz-  
ten dire, beharresi Ebanjelioa irakasten zaiole.  
Eta dehatsu da ene gatik makurtzen ez dena.  
Bada hek joan eta, Jesus hahi zitzaion popu-

luari Joanesez mintzatzen: Zeren ikusterat ilki  
 zarete morturat? Haireak derabilan kanabera  
 baten? Bai, zeren ikusterat ilki zarete? Guriki  
 jauntzia den gizon baten? Erregeen etketan  
 baitire bada guriki jauntzen direnak. Beraz,  
 zeren ikusterat ilki zarete? Profeta baten?  
 Bai segur diotzuet, eta profeta baino gehiago  
 den norbiten. Ezen hura hura izan da  
 iskribatua: Huna non igorri dudun ene  
 aingerua zure aintzinean, zuri bidaroen  
 aphaintzeko.

Abendoko hirugarren igandean

(Jon Domi Joani, 1)

Juduck Jerusalemetik apezak eta lebitarrak  
 igorri ziotzen Joanesi, galdegiterat: Zu nor  
 zare? Eta aithortu zuen, eta ez ukatu; bai,  
 aithortu zuen: Ez naiz Kristo. Eta galdegin  
 zioten: Zer bada? Elias zare. Eta erran zuen:  
 Ez naiz hala. Profeta zare? Eta ihardetsi zuen:  
 Ez. Erran zioten beraz: Nor zare? Errepusta  
 eman diotzegun igorri gaituztenesi, Zer dio-  
 zu zuharez? Erran zioten: Ni naiz mortuan



sikuka hari denasen boza. Chuchen zazue  
gauraren bidea, Isaias profetak erran izan  
duen bezala.

Eta igorri ziozkatenak, farisauek ziren.  
Eta galde bat egin zioten, eta erran: Zer gatik  
bathaiatzzen duzu, ez bazare risto, ez eta  
Elias, ez eta profeta? Thardetsi zioten Joanesek,  
ziolarik: Nik urean bathaiatzzen dut; zuen  
arteam aldiz bada zuak ezagutzen ez duzuen  
norbeit. Hura da ene ondotik ethortzekoa  
dena, ni baino lehenagotanik dena; ni ez  
bainoiz on haren oinetakoen lotgarniaren  
lathatzeko. Haur Bethaniam gertatu ziren  
Jordanetik bertze aldean, han hari baitzen  
Joanes bathaiatzzen.

Abendoko laugarren igandean  
(San Luke, III)

Ciberio Cesar enperadore zenetik hamabortz-  
garren urtean, Pontzio Pilatus zelarik Ju-  
dean aintzindari, Herodes aldiz Galilean,  
Inuen anaia Filipe Iturean eta Erakonita  
herrian, Lizaniaz berriz Abilenan; Anas

eta Kaifas zirelarik aphez-nausi, jinkoa mintzatu zitzaion Joanés Lakariaren semeari mortuan. Eta etxerri zen Jordaneke herrialde guzirat, predikatu urrikizko batzaia bekhatuen barkhamenduarentzet iskribatua den bezala Isaias profetaren hitzen liburuan: Mortuan oihuka hari denaren boza: Afpkain zague Jaunaren bidea, chuchen zague haren bidechkak. Hbaranek oro betheko dire, mendiak eta mendichkak aphalduko, bide makurrak chuchenduko dire, eta kozkordunok bardinduko. Eta gizon guziek ikusiko dute jinkoa-garikako Salbatzailea.

Eguberri ondoko igandean

(San Luke, II)

Josep, eta Maria Jesusen ama, miretsiak zauden harentzat erraten zituztenek. Eta benedikatu zituen Timeonek, eta erran zion Maria haren amari: Hura non ezarria izanen den hau Izraeldar hainitzen galpenean eta salbamendutan, ezarria etsaiek jazarriko zairkon bandera bat bezala. Eta zero

8  
niri arima zilatiko dautzu erpatak, hainitz  
bihotzetako gogotak ager dituzentzat. Eta  
bazen profetasa bat, Iona, Samueleen alaba,  
Izerrerren ethorkitikakoa; hau adin handirat  
heldua zen, eta neskatza zelarik hartu zuen  
senhararekin bizi izan zen zazpi urtey. Eta  
alargunts egote zen lanetan hogoi-ta lau  
urthetaraino, Et-zen tenplotik aldaratzen;  
barurean eta othoitzean jinkoa zerbitzatzen  
zuen gau eta egun. Hura ere, ordu berean  
harat ethorritik, eman zen Jaunaren lauda-  
tzen, eta haurraz mintzo zitzaizten Izraelen  
erospena igurikatzen zuten guziri. - Eta oro  
akabatu ondoan Jaunaren legearen arabera,  
itzuli ziren Galilearat, Nazaret bere hirirat.  
Bada Haurra larrizzen hari zen eta hazkar-  
tzen, zuhurtziar bethea; eta jinkoaren grazia  
haren baitan zen.

Erufaniatik lehen igandean

(San Luke, 11)

Jesus hamabi urthetan zelarik, haren bu-  
chasoak igan ziren Jerusalemrat, phesta 1

1 Phazko phesta

denboran usuaia zuten bezala. Eta phesta egu-  
nak iragan-eta gibelat jaan zirenean, Jesus  
Haurra gelditu zen Jerusalemen, eta haren bu-  
russak et-ziren ohartu. Ustez-eta heien la-  
gumekin zen, egin zuten egun baten bidia,  
eta bilka zabiltean ahaiden eta egogunen ar-  
tean. Eta ez baitzuten kausitzen, itzuli ziren  
Jerusalemerat haren bilka. Eta hiru egunen  
buruan kausitu zuten tenpluan, irakasle  
erdian jarria, heien entzuten, eta heieri galdel-  
egiten hari. Eta entzuten zuten guziak harri-  
tuak zagozgin haren zukuizari eta ihardis-  
teri. Eta ikustearekin miretsi ziren. Eta erran  
zion bere amak: Haurra, zertako egin danku-  
zu holakorik? Hona non zure aitak eta  
nik bihotz-minekin bilhatzen zintugun. Eta  
ihardetsi zioten: Zertako bilhatzen minduzuen?  
Et-zinakiten-a ene aitak manatu gauzetan  
behar naizela aurkitu? Eta hek et-zuten aditu  
harek erran zioten solasa. Eta jautsi zen  
heiekin, eta ethorri Nazareterat, eta heien  
eskupeko zen. Eta haren amak solas horiek  
guziak begiratzen zituen bere bihotzean. Eta Jesus

aintzinat zean zuberutzian, adinean eta grazian,  
ginkoaren eta gizonen begietan.

++ Erufaniatik bigarren igandean.

(Jon Domi Joani II)

Eztaiak egin ziren Kana Galileakoan, eta han zen  
Jesusen ama. Bada Jesus ere eztaietarat deitua izan  
zen bere dizipuluekin. Eta arnoa eskasten zelarik  
Jesusi erran zion bere ama: Bernorik ez dute.  
Eta Jesussek inardetsi zion: Emagtea, zer nahi dau-  
tazu? Ez da oraino ethorria ene orena. Haren  
amak erraten diote sehiri: Zer ere erranen bai-  
terantzue, egizue. Bada baziren han harrizko sei  
untzi, juduak chakue zitezentzat ezarriak, lako-  
tchak baitzauzkan biz-pa-hiru metreta. Jesussek  
erraten diote: Bethi zatzue untziak urez. Eta be-  
the zitezten gaineraino. Eta Jesussek erraten  
diote: Erants-azue orai, eta eremozue mahaineko  
buruzagiari. Eta ereman zisten. Bada mapaineko  
buruzagiak dastatu zueneko arno bilhakatu ura,  
ez baitzakien nondik zen (bazakiten aldiz ura eka-  
rri zuten sehiak), mahaineko buruzagiak deitzen  
du jaun esposa, eta erraten dio: Nor-narik  
has tetik ematon du arno ona; eta, jendea eda-

na izaten denean, orduan tcharragoa, zuk al-  
diz arno ona iduki duzu orai artio. Hori egin  
zuen Jesussek bere mirakui bularik lekona Kana  
Galileakoan; eta ezagutarazi zuen bere lath-  
rea; eta hasen baitan sinhetsi zuten haren  
dizipuluek.

++ Erufaniatik hirugarren igandean  
(San Matheu, VIII)

Jesus jaitsi zenean menditik, jarraiki zitzaion  
jendez lehor. Eta huna non lepradun bat ethorri  
zitzaion, eta ahuspez emanik erran zion: Jauna,  
nahi baduzu, garbitzen ahal naiz. Eta eskua  
hedatuz Jesussek ukitu zuen, ziotarik: Nahi dut,  
garbi zait. Eta berehala garbitu zen haren  
lepra. Eta Jesussek erran zion: Beha, nihori  
ez erran; baina zoaz, eta aper zait aphezuri;  
eta eskain zazu Moisek manatu emaitza, hek  
lekuko izan ditezentzat.

Berriz Kafarnanen sartu zenean, hurbildu zi-  
tzaion ehun soldadoen aintzindari bat ethoizka  
eta erran zion: Jauna, ene mutkila etzana dago  
etxean paralesiak jorik, eta oinaze handiak  
ditu. Eta Jesussek erran zion: Etorriko naiz, eta

sendatuko dut. Eta ihardetxi zion aintzindariak,  
 erranz: Jauna, ez dut merzezi ene etxean sar  
 zaitzen; bainan bakharrik hutz bat errazu, eta  
 ene multzila sendatuko da. Ezen nik ere, bertzen  
 meneko gizon bat izana-gatik, baditut soldadoak  
 ene arzikoi, eta erraten diot bati: Habil, eta badoa;  
 bertze bati: Hanga, eta heldu da; eta ene multzi-  
 lari: Egizak hau, eta egiten du. Bada horiek entzu-  
 tearekin, Jesussek, miretsirik, erran zisten jarraikitze  
 zitzaz koneri: Egiaz derratzuet, ez dut kausitu hoin  
 fede handirik Izraelen. Eta erraten dautzuet, haini-  
 tzak direla storriko bai iguzkia ateratzen den  
 bai sartzen den tokitik, eta jarriko direla Abra-  
 hamekin, Izaakekin eta Jakobekin zeruetako  
 erresuman. Erresumako umeak aldiz artikiak izanen  
 dire karpoko ilhumbetarat, han izanen baita  
 nigar eta hortz karraska. Eta Jesussek erran zion  
 aintzindariari: Loaz, eta sinhetxi duzun bezala  
 egin bekizu. Eta orduan berean sendatu zen  
 multzila

Erufaniatik laugarren igandean

(San Mathie, VIII)

Jesus untzichkarat igaitzarekin, jarraiki zitzaz-

kon bere dizipuluak. Eta funa non handizki deboilatatu zen itsasoa, hainbertzetaraino non uhinez estalia baitzen untzichka; bera aldez lo zagon. Eta hurbildu zitzaizkon dizipuluak, eta iratzorri zuten, ziotelarik: Jauna, salba gaitzatzu; galtzerat goazi. Eta Jesussek erraten diote: Zertako zarete belodurti, sinbeste tipikoaak? Jekirik orduan, manatu zioten haizeri eta itsasari, eta egin zen jabaldura handia. Bada oro niaresten ziren, ziotelarik: Nor da hau, haizek eta itsasoak entzuten baitute!

Grufaniatik bortzgarren igandean

(San Matheu, XIII)

Jesusek jenderi erran zioten alegiazko ichtorio hau: Zeruetako erreseumak iduri du gizon bat, bere landan hazi ona erain zuena. Baina ethe-gizonak lo zagotzilarik, et horri zen haren etsaia, eta gainetik erain zuen hiraka ogi-pegan, eta jgan zen. Bada belharrak, handiturik, buruak egin zituenean, orduan agertu zen hiraka ere. Eta behiak et hori zitzaizkon etheko nausiari, eta erran zioten: Jauna, et-zinuen-a hazi ona erain zure landan? Non-



dik beraz du hiraka? Eta ihardetsi zioten: Gizon etsotak egin du hori. Eta sekuek erran zioten: Nahi dugu goazen, eta bil dezagun hiraka? Eta ihardetsi zioten: Ez, heldurseg- eta hiraka biltzean, ~~haratik~~ harekin errotik atosa dezaguen ogia ere. Utz- atque bata eta bertzea handitzerat uztaizaino, eta urta denboran erranen dietet ephaileri: Bil zague lehenik hiraka, eta ezpalke lot erretzeko; ogia aldiz bil zague ene selharurat.

Erupnietik seigarren igandean  
(San Mathiu, XIII)

Jesusk jenderi erran zioten alegiazko ichtorio hau: Zerutako erresumak iduri du mustarda beldia, gizon batek hartu eta bere landan erain duena. Hau da hazi guziztan chehema. Bainan handitu denean, belharki guziak baino larrago da, eta arbola bilhakatzen da, hartarat ethortzen baitire zeruko choriak, eta haren adarretan egoten.

- Bertze alegiazko ichtorio bat erran zioten: Zerutako erresumak iduri du altchagarria, emazte batek hartu eta hiru negurri irinetan nabastekatzen duena, orke guzia altchate artio. Horiek guziak alegiazko ichtoriotan erraten ziozkaten Jesusk

jenderi, eta et-zitzaiosten alegiazko ichtoristan  
baizik mintzatzen. Berhe zadintzat profetak  
erran zuena, zionsan: Alegiazko ichtoristan  
idekiren dut ene-akoa, eta agerturen ditut  
munduaren hastapenetik gordeak zauden gau-  
zak.

+ Garizuma aintzineko hirugarren igandean  
(San Mathin, xx)

Septuagesima

Jesusk alegiazko ichtorio hau erran zioten bere  
dizipulueri: Zeruetako erresumak iduri du etheko-  
jaun bat goiz-goizetik ilki zena bere mahastiko-  
tzat langile-keta. Bada langileekin hitz-eginik  
eguneko denario banaz, igorri zituen bere mahasti-  
rat. Eta hirugarren oreneko irian ilkirik ikusi  
zituen bertze batzu plazan zagozela alfer, eta  
erran zioten: Loazte zuek ere ene mahastirat, eta  
zuzen daitekera emanen dautzuet. Eta joan ziren.  
Berritz ere ilki zen seigarren eta bederatzigarren  
oreneko irian, eta barchin egin zuen. Ber kenekotz  
hamekagarren orena gainerat ilki zen, eta bertze  
batzu kaudite zituen han egoki, eta erraten diote:  
Zergatik zagozte hemen egun guzia alfer? Thandes-

den diote: Ni horik ez gaituelakotz hartu. Erraten diote:  
 Loazte zuek ere ene mahastirak. Bada, arratsa et horri  
 denean, mahastiraren jabeak erraten dio bere etche-  
 ko-gizonari: Beit zatzu langileak, eta emozute  
 beren saria, azkenetarik hasirik lehenbizikoeta-  
 raino. Hurbiltu zirenean beraz hametagarren orna-  
 ren gainerat et horri zirenak, izan zuten denario bana.  
 Lehenbizikoak aldiz et horri zirenean, uste izan zuten  
 gehiago izanen zutela; baina nek ere izan zuten  
 denario bana. Eta hartzean erabiaka hari ziren etche-  
 ko-jainaren kontra, ziotelarik: Ezken horiek oren  
 bat haritu dire, eta gurekin bordin ezarri ditatzu,  
 guk egun osoko beroa eta nekhea jasan dugularik.  
 Baina harek ihardetsi zion hetarik bati, ziotelarik:  
 Adichkidea, ez dautzut bi degaberik egiten. Et-  
 zinen-a denario bateg hitz-egina enekin? Har-  
 zazu zurea dena, eta zoaz. Bada, azken huri  
 ere nahi diot eman zuri bezenbat. Aha ez naiz-a  
 haizu nahi dutanaren egiterat! Aha zure begia  
 gaichtoa othe da, ni ona naizelakotz! Hala izanen  
 dire azkenak lehen, eta lehenak azken. Ezen  
 hainitz bada deiturik, baina gute hautaturik.

+ Garizuma aintzineko bigarren igandean  
(San Luke, VIII)

Letzaseziman

Nola jende handia biltzen baitzen, eta hirietarik  
lehiarekin haren ganat joaten, Jesussek erran  
zieten konfharantza hau: Erailea ilki ziren bere  
harziaren eraiterat, eta eraiten zuelarik, bihi batzu  
erori ziren bide bastererat, eta zangopean erabiki-  
ak izan ziren, eta zeruko choricak jain ziturton.  
Eta bertze bihi batzu erori ziren harziaren gainerat,  
eta sortu zireneko ihartu ziren, hezatzekorik et-zute-  
lakotz. Eta bertze batzu erori ziren laphar arterat,  
eta heiekin handiturik lapharrek itxo ziturton. Eta  
bertze batzu erori ziren lur onerat, eta sorturik  
eman ziturton bihi batentzat ekun. Floriek erratean,  
oikue egiten zuen: Aditzeke beharirik duenak adi  
beza. Bada bere diripuluek galdegin zioten zer erran  
nahi zuen alegiazko ichtorio horrek. Eta erran zioten:  
Luri emana izan zaitzue jinkoaren erresumako mis-  
terioaren epagutzea. bertzeri aldiz alegiazko ichtorio-  
tan irakatsi zaitote, ikustean ez dezatontzat ikus, ez  
eta entzutean adi. Honna beraz zer erran nahi  
duen alegiazko ichtorio horrek: Hartzia da jin-  
koaren hitza. Bide basterreko bihiak, hez dire

entzuten dutenak: gero heldu da debzua, eta hitza khentzen du heien bihotzetarik, sinketsiz salba ez ditezentzat. Harriaren gainerat erroiak aldiz dire, hitza entzuten eta gogotik hartzen dutenak; baina hek errorik ez dute, aphur bateko baita heien sinkestea, eta ukho egiten baitute tentazioneko denboran. Laphar arterat erroiak aldiz, hek dire entzuten dutenak; baina asko antsiak, aberastasunek, eta biziko atseginek beren abiaduran ithotzen dituzte, eta fruiturik ez dakharkete. Itzkenekotz, lur onerat erroiak, hek dire bihotz onean eta arras onean hitza hartu-eta idukitzen dutenak, eta fruitua ekhartzaren pazientziaren bidez.

+ Garizuma aintzineko igandean  
(San Luke, XVIII)

Kinkabeziman.

Jesusek berech hartu zituen hamabiak, eta erran zisten: Huna non igaiten garen Jerusalemrat, eta bethoko dire profetik gizonaren Semear, iskribatu dituzten gurziak. Ezen paganoen eskuetarat emana izanen da, eta trufatuko dute, eta azotatuiko, eta thuztatuko; eta azotatu ondian hilen dute,

eta hirugarren egunean piztuko da. Baina hiek  
 horietarik deus et-zuten aditu, eta solas hosi  
 gordea zen heientzat, eta haren erranak et-zituz-  
 ten aditzen. Bada gertatu zen, Jerikorat hurbiltzen  
 zelarik, iten bat jarria zagola bide bazterrean,  
 eske. Eta nola entzuten baitzuen jende hainitz iragaiten,  
 galdegira zuen zer zaiten. Eta erran zioten  
 Jesus Nazaretikoa iragaiten zela. Eta oihu egin  
 zuen, ziotarik: Jesus, Daliden semea, urrikal nakizu.  
 Eta aintzinean zoatzenak gaizkika hari zitzaizkon  
 ichilarazteko. Baina hark hainitz gehiago oihu  
 egiten zuen: Daliden semea, urrikal nakizu. Bada,  
 gelditurik, Jesusak manatu zuen ekhar ziozoten. Eta  
 hurbildu zenean, galde hau egin zion: Zer nahi duzu  
 egin diezazudan. Eta hark ihardetsi zion: Jauna,  
 ikus dezadan. Eta Jesusak erran zion: Ikus-azu, zure  
 sinhesteak salbatu zaitu. Eta ordu berean ikusi zuen,  
 eta jorraikitzen zitzaion, jinkoari esker eta laudorio  
 bikhurtuz. Eta jende guziak ere, hori ikustearchin, laudorio  
 eman zion jinkoari.

+ Garizumako lehen igandean  
 (San Mathieu, IV)

Izpirituak Jesus morturat ereman zuen, debruak

tentatzeko. Eta berrogoi gau egunez barus egin zue-  
near, gero gosetu zen. Eta, hurbildurik, tentatzai-  
leak erran zion: Jinkoaren Semea balin-bazare,  
errazu horri horiek ogi bilkaka diton. Jesusek ihardetsi  
zion, erranez: Iskribatua duk: Ez da bakharrik ogiz bizi  
gizona, bainan jinkoaren ahotik ateratzen den hitz  
guruz. Orduan debruak ereman zuen hiri saindurat  
eta temploaren kasko-kaskoan ezarri. Eta erran  
zion: Jinkoaren Semea balin-bazare, artik-azu zure  
burua behiti, ezen iskribatua da: Bere aingeruak  
manatu diote zure zaintzea, eta eskuetan ekarriren  
zaituzte, horriek zangoz jo ez dezazuntzat. Jesusek  
ihardetsi zion: Haur ere iskribatua duk: Ez duzu  
tentatuko zure jinko Jauna. Berriz ereman zuen  
debruak mendi arras gora batetatat, eta irakutsi  
ziozkan munduko eresumak oro, eta hein aberas-  
tasunak, eta erran zion: Horiak gurziak emanon  
dauzkitzut, baldin ahuspez eroririk adoratzon  
banairu. Orduan Jesusek erraten dio: Habil, Saten,  
ezen iskribatua duk: Zure jinko Jauna adoratuko  
duzu, eta hura bakharrik duzu zerbitzatuko. Orduan  
utzi zuen debruak, eta hura non aingeruak  
hurbildu zitzaizkon, eta zerbitzatzon zuten.

+ Garizumako bigarren igandean,  
(San Mathie, XVII.)

Jesusek berekin harturik Petri, jakobe eta huren anaia Joani, berek eraman zituen mendi gora batetarat, eta itchuraz aldatu zen heien aintzinean. Eta distiratu zuen haren begitarsteak iguzkiak bezala; eta haren soinekoak egin ziren elhurra bezen churi. Eta huna non agertu zitzaizkoten Moise eta Elias, harekin solasean. Bada Petri mintzatu zen, eta erran zion Jesusi: Jauna, ongi gare gu hemen; nahi baduzu, egin detzagun hementchet hiru egoitza, bat zuretzat, bertze bat Moisetzatzat, bertze bat Eliasetzatzat. Oraino mintzo zelarik, huna non hedoi argi batek itzali zituen. Eta hedoietek huna boz bat disena: Hau da ene seme maitea, huren baitan dut ene gogo guzia; hau entzun-azue. Eta aditzearekin, dizipuluak erosi ziren ahuspeka, eta hainitz izitu. Eta hurbildu zitzaizoten Jesus, eta ukitu zituen, eta erran zioten: Chute zaitzete, eta ez izan beldurrik. Eta begiak altchatzean, nikor et-zuten ikusi, Jesus bera laizik. Eta menditik jausten zirelarik, jesusek debeku hau egin zioten: Nikor ez erran zer ikusi duzuen, gizonaren semea heletarik piztu artea.



+ Garizumako hirugarren igandean  
(San Luke, XI)

Jesus hari zen debru baten kasatzen, eta debru hura mutua zen. Eta debrua kasatu zuenean, mutua mintzatu zen, eta karritu zen jendea. Bizkitortean han zirenetarik zendeitek erran zuten: Beelzebuth debru-nausiaren bidez kasatzen dituzte debruak. Eta bertze batzuek, frogatzeko, galdegi-ten zioten zerutikako ikusgarri zerbeit. Baina Jesusok, ezaguturik heien gogotak, erran zioten. Bi akadetarat dagon erresuma chahutua izanen da, eta ethea bere gainerat lehorturen da. Baldin beraz Satan ere bere kontra hari ~~batin~~ bada, nola dirauke haren erresumak? Ezen diozue, Beelzebuthen bidez kasatzen dituzdala debruak. Bada nik Beelzebuthen bidez kasatzen badituzte debruak, zuen umek noren bidez kasatzen dituzte? Hurrengatik hauk berak izanen dire zuen juje. Baina jinkoaren eskus kasatzen badituzte debruak, segur zuen ganat heldua da jinkoaren erresuma. Hatzkas denak harmaturik zointzen duenean bere ethe-sartzea, segusean dire haren ontasunak. Baina fera baino haz-karragoa heldu bazaino eta harek garhaitzen badu,

khenduko diozka fida zen harkma guziak, eta  
 hari khenduak emanen diozkate bertzeri.  
 Enekin ez dena ene kontra da, eta enekin  
 biltzen ez duenak barraiatzen du. Izpiritu  
 lobia ilki denean gizon baten ganik, bada-  
 bila urik gabeko tokietan, deskantsu-keta,  
 eta ez baitu kausitzen, erraton du: Itzuliko  
 naiz ilki naizen ene etcherat. Eta ethorri  
 denean, kausitzen da jatsaz garbitua eta apha-  
 dua. Orduan bada, eta hartzen ditue berekin  
 bertze zarpi izpiritu bera baino gaichtoagoak,  
 eta sarturik han egoten dire. Eta gizonaren azken  
 moldea izaten da lehenekoa baino arago. Bada  
 hola mintzo zelarik, emazteki batek, althaturik  
 boza jenden artetik, erran zion: ~~Dohatsuago~~ zu  
 garraiatu zaituen sabela, eta zuk churgatu di-  
 tutzun bulharrak! Eta Jesussek ihardetsi zion:  
 Dohatsuago ginkoaren hitza entzuten dutenak  
 eta begiratzen.

+ Garizumako langarren igandean

(Jon Doni Joani, VI)

Jesus joan zen Galileako, erran nahi da Eberiadeko  
 itsasoaz kairdirat, eta jirraititzen zitzaion jende

hainitz, ihusten zituztelakotz ere zirenen baitan  
 egiten zituen mirakulua. Joan zen beraz Jesus  
 mendirat, eta han jarririk zagon bere dizipulu-  
 ekin. Bada hurbil zen Phariseo, Juduen jabea  
 eguna. Beraz begiak altchatu zituenen Jesusk,  
 eta ikusi zuenean jendez leher heldu haren ganat,  
 erran zion Filipei: Nondik erosiko dugu ogia,  
 horiek jiteko? Bada hori erraten zuen haren frogat-  
 zeho; ezen berak bazakien zeren egiterat zion.  
 Filipek ihardetsi zion: Berrehun denarioren ogia ez  
 laiteke aski, horietarik bakotxak puskatto baton  
 izateko. Erraten dio bere dizipuluetarik batek, Andres  
 Limon Petriren anaiak: Bada nuthiko bat hemen,  
 bortz garagar ogi eta bi arrain dituen; baina  
 horiek ~~zer~~ dire hoi bertzerentzat. Jesusk orduan  
 erran zioten: jarraraz-azue jendea. Bada lazen  
 belhar hainitz toki hastan. Jarri ziren beraz bortz  
 mila gizonen heina. Orduan Jesusk hartu zituen  
 ogiak eta eskerak bihurtu ondoan, zatitu zioz-  
 katen jarriak zireneri; arrainak ere orobat, nahi  
 zuten bezembat. Hase zirenean, erran zioten dizi-  
 pulueri: Bil zatizue sobratu diren puskak, gal  
 ez diteren. Bildu zituzten beraz, eta hamahi saski  
 bethe bortz garagar ogietarik jaleri sobratu

zitzazkoten puskekin. Gizon hek bezaz, ikusirik  
 Jesusék egin zuen mirakulua, erraten zuten:  
 Hau da egiazki profeta, mundurát ethortzekoa  
 dena. Jesusék aldiz, baitzakien ethortzekoak zire-  
 la haren hartzerat eta errege egiterat, berriz  
 mendiat ihes egin zuen bakar bakarra.

+ Garizumako bortzgarren igandean  
 (Jon Doni Joani, VIII.)

Dabioneko igandean.

Jesusek erran zioten Judeako jendetzari: Luetasik  
 norik frogatuko daut bekhatu bat? Egia erraten  
 badautzuet, zergatik ez naizue sinkestean? Jinko-  
 aren ganikakoa denak entzuten ditu jinkoaren  
 hitzak. Horra zergatik ez dituztuen zuek entzuten,  
 et. zaretelakotz jinkoaren ganikakoa. Juduek or-  
 duan ihardetsi zioten, eta erran: Ez othe dugu  
 ongi erraten guk, Lamaritarra zarela zu, eta debrua  
 zurekin dugula? Ihardetsi zuen Jesusék: Ez dut  
 nik debrurik; bainan ohoratzen dut ene hita,  
 eta zuek desohoratzen nauzue. Ez dut nik ene  
 ohorea bilhatzen; bainan bada bilhatuko duena,  
 eta justizia eginen duena. Linez eta egiaz erraten  
 dautzuet: Norbeiték ene hitza begiratzen badu,

herioa ez du sekulan ikubiko. Juduek erran  
 zioten orduan: orai ezagutzen dugu debua ba-  
 duzula. Abraham hil izan da, profetak ere bai;  
 eta zuek diozu: Abreitek ene hitza begiratzen  
 badeu, herioa ez du sekulan dastaturen. Gekiago  
 othe zare zu, Abraham gure aita hil izan  
 dena baino? Profetak ere hil izan dire. Abren-  
 tzat daukazu zure burua? Jesusek ihardetsi  
 zuen: Nik ene buruari ohore ematen badiot,  
 ene ohorea deus ez da; ene Aita da eni ohore  
 ematen dautana, hura baitozue dela zuen  
 jinkoa. Eta zuek ez duzue hura ezagutzen; nik  
 aldi ezagutzen dut. Eta erran banega ez dutala  
 ezagutzen, zuek iduria ninteko, gezurtia. Bainan  
 ezagutzen dut, eta begiratzen dut haren hitza.  
 Abraham zuen aitak suharki gutuziate du ene  
 egunaren ikustea; ikusi du, eta bozta da. Horren  
 gainean Juduek erran zioten: Ez ditutzu oraino  
 berrogoi-ta hamar urte, eta Abraham ikusi  
 duzula! Ihardetsi zioten Jesusek: Linez eta egiaz  
 erraten dantzuet: Abraham egin baino lehen,  
 ni banair. Orduan harriak hartu zituzten,  
 hari artetikitzeko; bainan Jesus itzali zen, eta  
 ilki tenplotek.

+ Garizumako seigarren igandean

(San Mathia, XXVI.)

Erramuz

Bada biharamunean, hura baitzen larumbata,  
aphez-nausiak eta farisanak batean ethorri  
ziren Pilatusen ganat, ziotelarik: Jauna, orkoitza  
gare enganatzailk horrek erran duela oraino biga  
zelarik: Hiru egunen buruan fitzteren naiz.  
Zaintaraz-azu beraz hobia hirugarren egunerai-  
no, beldurrez-eta ethor ditezzen horren dizipulu  
ak, eta erran dezoten populuarari: Fitzte da hite  
tarik; azken enganio hori lehenkoa baino areago  
baikitake. Pilatusak ihardetxi zioten: Badituzue  
zaintzaleak; zoazte, zaintzazue zuen gogorat.  
Bada hek joan ziren, eta hobia segustatu zuten,  
harria zigilatuz, eta ezarri zituzten zaintzaleak

Pharkoz

(San Marke, XVI.)

Maria Madalenak, eta Maria Jakoborenak, eta  
Salomek erosi zituzten usain onak, Jesusen gan-  
tuzterat joateko. Eta larumbat biharamunean  
goiz goizetik badoatzi hobiat, iguzkia aterate  
orduko. Eta erraten zioten elgarri: Work amik

23  
duko dauku harria hobiaen sartzetik? Eta,  
behatzearekin, ikusi zuten harria amildua.  
Gaitza zen alabainan. Eta sarturik hobia,  
ikusi zuten gizon gazte bat jarria eskuinetarik,  
soineko churiz jauntzia, eta harrita zireen. Harek  
erraten die: Ezgaitzela izi. Jesus Nazaretkoa,  
gurutzefikatu izan dena, duzue bilkatzen. Piztu  
da, ez da hemen: huna ezarri zuten tokia. Bai-  
nan zoazte, errozute haren dizipulueri eta Petri  
aintzintzen zaituztela Galilearat; han ikusiko  
duzue, erran dantzuen bezala.

+ Phaztirik lehen igandean

(Jon Doni Joani, XX.)

Phazko zaharrez.

Aburatsa zelarik egun hartan, larunbat bihara-  
munean, eta hetsiak zirelarik apostoluak juduen  
beldurrez bilduak zagotzin tokiko atheak, etorri  
zen Jesus, eta heien erdian eman, eta erran zioten:  
Bakea zueri. Eta hori erran eta, irakutsi ziozkaten  
eskuak eta sabelsa. Orduan erran zioten berri:  
Bakea zueri. Bitak ni igorri nauen bezala, nik  
ere zuek igortzen zaituztet. Horiak erran eta,  
ufatu zuen heien gainerat, eta erran zioten:

Hara zaru Izpiritu. Saizdua. Nori barkhatuko  
 baitiozkatzute bekhatuak, barkhatuak izanen zaizkote,  
 eta nori atchikiko baitiozkatzute, atchikiak izanen  
 zaizkote. Bada Thomas, hamabietarik bat, Didimo  
 deitua, et-zen heiekin Jesus ethorri zenean. Erro  
 zioten beraz bertze dizipuluek: ikusi dugu Nausia.  
 Harek aldiz ihardetsi zioten: Non ez dutudan  
 ikusten haren eskutan itzen zibak, non ez  
 dudan ene erbia ematen itzen tobian, eta ene  
 eskua ezartzen haren saketsean, ez dut sinketsiko.  
 Eta zortzi egunen buruan, beritx ere dizipuluak  
 barne hartan ziren, eta Thomas heiekin. Ethorri  
 zen Jesus, atheak hetsiak zirelarik, eta heien erdian  
 eman, eta erran zuen: Bakea zuei. Gero erra-  
 ten dio Thomasi: Ekhar-ak humat hire erbia,  
 eta ikus-atzik ene eskuak, eta hurbil-ak hire  
 eskua, eta erar ene saketsean, eta ez hadila izen  
 sinkeste-gabeko, bainan bai sinkestedun. Tho-  
 masek ihardetsi zion, eta erran: Ene Jauna eta  
 ene Jinkoa! Jesusak erran zion: Ikusi nauka-  
 lakotz duk sinketsi, Thomas. debatu ikusi gabe  
 sinketsiko dutenak. Bada Jesusak egin zituen bere  
 dizipuluen aintzinean bertze arko mirakulu,  
 liburu hontan iskribatuak ez direnak. Hauk



aldiz iskribatua izan dire, sinkets dezazuentzat  
Jesus dela Kristo jinkoaren semea, eta sinketziz bi-  
zitza izan dezazuentzat hari esker.

++ Phazkotik bigarren igandean

(Jon Doni Joan, X.)

Jesusak erran zioten Farisaueri: Ni naiz bertzain  
ona. Bertzain onak bere bizia ematen du bere  
ardientzat. Saritan dagoenak aldiz, eta artzain  
ez denak, ardiak bereak ez dituenak, ikusten du  
otsoa heldu, eta uzten ditu ardiak, eta bada  
ihesi; eta otsoak harrapatzen ditu eta barraiatzen  
ardiak. Bada saritan denak ihes egiten du, sarit-  
tan delakotz, eta ez delakotz ardiez gordinak. Ni  
naiz bertzain ona, eta ezagutzen ditut ene ardi-  
ak, eta ezagutzen naute enek. Nola ni ezagutzen  
bainan bitak, nik ere ezagutzen dut bita, eta  
ene bizia ematen dut ene ardientzat. Baditut  
bertze ardiak ere, arditegi huntakoak ez dienenak,  
eta hek ekharri behar ditut, eta adituen dute  
ene mintzoa, eta izanen da artalde bakhar bat,  
eta artzain bakhar bat.

31

++ Phazbetik hirugarren igandean  
(gon Doni Joani, XVI.)

Jesusek erran zioten bere dizipulueri: Aphiur bat, eta ez naizue gehiago ikusiko; eta berritz aphiur bat, eta ikusiko naizue, zeren bainoa bitaren ganat. Horren gainean, haren dizipulu batzuek erran zioten elgarsi: Zer othe da erraten daukuan hori: Aphiur bat, eta ez naizue gehiago ikusiko, eta berritz aphiur bat, eta ikusiko naizue, eta: Zeren bainoa bitaren ganat? Zioten beraz: Zer da aiphatu duen hori: aphiurra? Ez dakigu zer erraten duen. Bada Jesusek ezagutu zuen zerbeit galdegin nahi zistela, eta erran zioten: Zuen artean bilhatzen duzue zer den nik erran hau: aphiur bat, eta ez naizue ikusiko, eta berritz aphiur bat, eta ikusiko naizue. Linez eta egiaz derratzen: Auker eta nigar eginen duzue zuek, mundua aldez boztuko da; atsegabeen izanen zarete, bainan zuen atsegabea bozkariotarat itzuliko da. Emazteak haur egitean atsegabe du, ethorria delakotz haren orena; bainan mundurat eman duenean seme bat, ez da gehiago bere hereturaz orhizitzen, bozkariotan delakotz mundurat gizon bat sortu-

32  
rik. Zuek ere beraz orai atsegabeen zasete, bai;  
bainan berritz ikusiko zaituztet, eta boztuko da  
zuen bihotza, eta zuen bozkariora niork ez dau-  
tzue khanduko.

Phazkotik langarren igandean.

(Jon Tomi Joani, xvi)

Jesusek erran zioten bere dizipulueri: Banoa  
igorri nauenaren ganat, eta zuetarik niork ez  
daut galdegiten. Norat zoazi? Bainan hola  
mintzatu natzaitzuelakotz, ihundurak bethe du  
zuen bihotza. Bizkitartean nik egia erraten dau-  
tzuet: On duzue joan nadin, ezen ez banai-  
z joaten, Kontsolatzailea et-zaitzue ethorriren;  
bainan joaten banai, igorriren dautzuet. Eta  
hura ethorriko denean, munduari frogatu-  
diorka bekkhatua, eta zuzena, eta jufamendua.  
Bekhatua behinbat, zeren ez baitute ni baitan  
sinketsi; zuzena aldi, zeren hitaren ganat  
bainoa, eta ez bainazue gehiago ikusiren,  
gero jufamendua, zeren jadanik jufatua baita  
mundu huntuako buruzagia. Askok badut orain  
zueri erratekorik; bainan ez detzarketzue orai  
jolan. Bainan ethorriko denean Espiritu egia-  
ti

hura, irakatsuren dautzue egia guzira, ezen ez da bere baitarek mintzatuko, bainan entzun dituen guziak erranen ditu, eta ethorkizuneko gauzez argituko zaituzte. Harek goseetiko nau, zuren enetik hartuko baitu, eta zureri irakatsiko.

Phazkotik hortzgarren igandean

(Jon Domi Joani, XVI)

Jesusek erran zioten bere diripulueri: Tinez eta egiaz derratuzet: Baldin zerbeit galdegiten badiozue Aitari ene izenean, emanen dautzue. Orain artio ez duzue deus galdegin ene izenean; galde zozue, eta izanen duzue, zuen bozkaria osoa izan dadintzat. Haurk hitz estaliz erran dauzkitzuet. Ebelde da orena non ez bainatzaitezue hitz estaliz mintzatuko, bainan garbiki ezagutarariko baitantzuet Aita. Egun hartan galdeginen duzue ene izenean; eta ez dautzuet erraten Aita ethoiztuko dutala zuentzat. Ezen Aitak berak maite zaituzte, zuek ni maite nauzelakotz, eta sinhetsi duzelakotz jinkoa-ren ganik, ateratua nauzela. Ateratu nauz Aitareren ganik, eta ethorri mundurat; berritz usten dut mundua, eta banoa Aitareren ganat.

Erraten diote bere dizipuluek: Huma, orai gar-  
biki mintzo zare, eta ez duzu hitz estalirik bate-  
re erraten. Orai ikusten dugu oro badazkitzula,  
eta ez duzula beharrik norbeit galdeke hari da-  
kizun; horrengatik sinhesten dugu Jinkoaren ganik  
ateratua zarela.

Salbatore eta Mendekoste arteko igandean

(Jon Domi Joani, XV-XVI)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Ethorriko  
denean nik bitaren ganik igorriko dauzue-  
tan Kontsolatzailea, Izpiritu egia, bitaren  
ganik ateratzen dena, harek lekukotasun eman-  
nen du nitaz. Luck ere lekukotasun emanen  
duzue, zeren hastetik enekin baitzarete. Horiek  
erran dauzkitzuet, eror et-zaitzetzentzat. Lina-  
gogetarik<sup>†</sup> kanpo emanen zaitziztete, eta heldu  
da orena non, nor-nahik hil zaitzaten, usteko  
baitu Jinkoari atsegin egiten diola. Eta horiek  
eginen dauzkitzute, ez gaituztelakotz ezagutzen  
ez baita, ez ni. Baina horiek erran dauzki-  
tzuet, horien orena ethorriko denean, orhoit zai-  
tetzentzat nola nik erran dauzkitzuetan.

† Linagogetarik, erran nahi da: Juduen othritz-etchetarik

+ Mendekostez

(Jon Doni Joani, XIV)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Norbeitik ni maite balin-banau, ene hitza begiratuko du, eta ene hitak maitatuko du hura, eta haren ganat jinen gare, eta gure egoitza haren baitan eginen dugu. Ni maite ez naueinak, ene hitzak ez ditue begiratzen. Eta entzun duzuen hitza ez da ene bainan ni igorri naueinarena, hitarena. Hark erran dauzkitzuet, zuekin nagolarik. Izpiritu Saindu Kontsolatzaileak aldiz, hitak ene izonean igoriren duenak, hark irakatsiko dauzkitzue guziak, eta orhoitaraziko zaituzte nik erran dauzkitzuetan guziez. Bakea uzten dautzuet, ene bakea dautzuet ematen, ez munduak ematen duen bezala dautzuet nik ematen. Ez bedi zuen bihotza asalda, ez ikhara. Entzun duzue nola nik erran dautzuetan: Banoa, eta heldu natzaitzue. Maite banin-duzue, bozkaria zintazkete segurki, hitaren ganat noalako, zeren hita ni baino gehiago baita. Eta orai dautzuet erran gertatu baino lehen, gertatuko denean sinkets dezaguen tzat. Ingoitiek ez naiz zuekin hantat mintzatuks. Ezen heldu da mundu hunen buruzagia;

36  
bizkitartean eni buruz ez du deus ahalik. Baina  
ezagut beza munduak bita maite dutala, eta bitak  
eni manatu bezala, hala dutala egiten. Jeiki  
zaitzete, goazen heremendik.

### Mendekostetik lehen igandean

(San Luke, vi.)

Izan zaitzete urrikalmendutsu, zuen bita ere  
urrikalmendutsu den bezala. Et-zazuela jifa, eta  
et-zarete jifatuak izanen; et-zazuela kondena, eta  
et-zarete kondenatuak izanen. Barkha zaze, eta bar-  
khatuko zaitzue. Emanue, eta emanen zaitzue: ne-  
gurri ona, eta tinkatua, eta asca, eta gaindizkako  
emanen dute zuen altzorat. Ezen negurta dukeruen  
negurri beraz zaitzue zueri ordainez negurtuzen.  
Konpharantza hau ere erraten zioten. Itsuak itsue  
bida ahal othe dezake? Ez othe dire biak erreka-  
rat eroriko? <sup>da</sup> Errikaslea irakaslea baina gehiago;  
bainan hat-bedera osoki ona da, bere nausia be-  
zenbat balin-bada. Nola bada ikusten duzu  
lastoa zure anaiaren begian, eta aldi zure  
begian den lazari et-zare oharitzen? Edo nola  
erran diezokereu zure anaiari: Senaia, utz-azu  
khen dezadan lastoa zure begitik, zeroni zure

37  
begiko lazari oharitzen et-zarenean? Alegia ona,  
khen zazu lehenik laza zure begitik, eta orduan  
abiatzen ahalko zare lastoaren idokitzen zure  
anaiaren begitik.

++ Mendekostetik bigarren igandean.  
(San Luke, XIV)

Jesusek alegiazko ichtorio hau erran zioten Farisau-  
eri: Gizon batek egin zuen afari handi bat, eta jinde  
hainitz gomitate. Eta afaritako tenorean bere sehia  
igotxi zuen gomitateari erraterat jiteko, guziak ja  
prest zirela. Eta hasi ziren guziak orobat esta-  
kuruka. Lehenak erran zion: Eteke-alde bat  
erosi dut, eta baiterpada behar dut joan, eta hura  
ikusi; othoi, barkha iezadazu. Eta bigarrenak erran  
zuen: Erosi ditut bertz idi pare, eta banoa heien  
frogatzerat; othoi, barkha iezadazu. Eta bertze  
batek erran zuen: Emaztea hartu dut, eta horren-  
gatik ez naiteke ethor. Eta gibelat jinik, sehiak  
berri horiek eman ziotkan bere nausiari. Orduan,  
hasarreturik, etheko-jauinak erran zion sehiari:  
Habil laster hiriko pilazetarat eta kaesketetarat,  
eta erromesak, eta herpailak, eta itruak, eta  
mainguak sarraraz-kik hunat. Eta sehiak erran



38  
zion: jauna, egin dut zuek manatu bezala, eta oraino  
tokia bada. Eta nautsiak erran zion sekiasi: Hala  
bidetarat eta sasi bazterretarat, eta hortcha zatzik  
sartzerat, ene etchea bethe dadientzat. Ezen erraten  
dautzuet, gomitatnak ziren jende hetarik niook  
ez duela ene afaririk dastatuko.

### Mendekostetik hirugarren igandean

(San Luke, xv.)

Zerga bitzailak eta bekhatorosak Jesusen ganat bid-  
tzen ~~dira~~ ziren, haren entzuteko. Eta Farisauak  
eta Eskribauak erasiak zagotzin, ziotelarik: Bai  
eta hurek bekhatoroseri begitarte baitote, eta heie-  
kin jaten baitu! Eta Jesussek alegiazko ichtorio hau  
erran zioten. Nor da zuen artean gizona, ehun  
ardi izaki eta hetarik bat galtzen bada, lauetan  
hogo: eta hemeretziak bortuan uzten ez dituenan,  
eta joaten ez dona galdua denaren ondotik, hura  
atzeman arto? Eta atzeman duenean, biltzen ditu  
adichhideak eta haugoak, erraten diotelarik: Dozka-  
ria zaiterte enekin, atzeman baitut galdua zen  
ene ardia. Erraten dautzuet, hola-hola bezkaris  
gehiazgo izanen dela zerruan penitentzia egiten duen  
bekhatoros batentzat, ezen ez lauetan hogo: eta he-

meretzi jistu, penitentzia beharrik ez dutenentzat.  
 Edo nor da emartekia, hamar drakma izaki eta  
 heterik bat galtzen badu, ez diena argia fuzten,  
 eta etchea garbitzen, eta artarekin bilhatzen, atzeman  
 artio? Eta atzeman duenean, emarte adichkideak  
 eta hauzoak biltzen ditu, diolarik: Berzkaria zaitzte ene-  
 kin, atzeman baitut galdu nuen drakma. Hola-  
 la, derratzuet, berzkario izanen da Jinkoaren ainge-  
 ruen baitan penitentzia ezitene duen bekhatosos ba-  
 tentzat.

Mendekostetik laugarren igandean

(San Luke, v.)

Nola jendea metaka gainerat baitzoakon Jesusi,  
 Jinkoaren hitza entzun nahiz, gelditu zen Jenera-  
 retako aintzira barterean. Ikusi zituen bi untzichka  
 aintzira hegian geldituak; arrantzaleak aldiz jantoi-  
 ak ziren, eta sarean garbitzen hari. Bada iraganik  
 Simonena zen untzichka heterik batetarat, othoiztu  
 zuen lehorretik urrun zadien puchka bat. Eta,  
 jaurri ondoan, untzichkatek hasi zen jende ospe-  
 ari irakaspen emaitera. Eta mintzatzerik gelditu  
 zenean, erran zion Simon: Egizu itxas handikat,  
 eta artik-atzue zuen sareak arrantzako. Eta

100  
Simonak ikardetsi zion, erranez: Nausia, gau  
gurzia bermaturik ez dugu deus atzeman; halere  
zure hitzaren gainean artetikiren dut sarea. Eta  
hori egin eta, halako arrainketa bildu zuten, non  
sarea lehortzen baitzitzaieten. Eta buruz kheinu  
egin zioten bertze untzirikkan ziren laguneri, ethor-  
treko heien laguntzerat. Eta ethorri ziren, eta bi un-  
tzirikkan hala bertze ziturten, non gutitarik ez bai-  
tziren hondatu. Hori ikustearakin, Simon Petri  
erori zen Jesusen oinetarat, ziolarik: Aldara zaite  
ene ganik, Jauna, gizon bektatoros bat naizelakotz.  
Aldabainan, lazdurak hartu zituen hura eta hare-  
kin ziren gurziak, atzeman zituzten arrainak  
atzemanik. Eta orobat Jakos eta Joanes, Lebederen  
seme, Simonen lagun zirenak. Eta Jesusak erran  
zion Simon: Et-zaitela izi, hemendik goiti  
gizonak ditutzu atzemanen. Eta untzirikkan  
lehortzerat ekharri ondolan, gurziak utzirik, jarraitu  
zitzaizkon.

Mendekostetik bortzgarren igandean

(San Mathin, v.)

Jesusek erran zioten bere dizipulueri: Zuen  
zuzentasunak ez balin-badu Eskribauena eta

11  
Parisianera gainditzen, et-zarete zeruetako erretu-  
man sartuko. Entzun duzue nola lehengo zaharre-  
ri erran zitzaizoten: Ez duzu hilen: eta biltzen  
duenak merezi izanen du jufamendua. Nik aldiz  
erraten deutzuet zuei: Nor ere bere anaiari hatarre-  
tzen baitzaio, merezi izanen du jufamendua. Eta  
norik ere bere anaiari erranen baitio, raka, merezi  
izanen du biltzarra<sup>1</sup>. Eta norik ere erranen baitio,  
erhoa, merezi izanen du ifernuko sua. Baldin  
beraz zure emaitza eskaintzen baduzu aldarean,  
eta han oroitze bazarre zure anaiak baduela zerbeit  
zure kontra: utz-azu han zure emaitza aldare ain-  
tzinean, eta goazi lehenik zure anaiarekin baketzorot,  
eta orduan ethorriko zure zure emaitzaren eskaintzuet.

### Mendekostetik seigarren igandean

(San Marke, viii.)

Nola jendez leker baitzen Jesusekin, eta ez baitzuten  
jatekorik, dirizpuluak bildurik erran zioten: Berikal-  
tzen zaizkit jende horiek, ezen huna ja hirru egun  
enekin dauzela, eta ez dute jatekorik. Eta barurik  
igortzen badituz beren etxetarot, flakatuko dire  
bidean; ezen horietarik zenbeit urrundik ethorriak  
dire. Eta ihardetsi zioten bere dirizpuluak: nondik  
1 jufamendua eta biltzarra ziren Juduen bi tribunal

horiek norbitek asetzen ahalko ditue hemen bertuan.  
 Eta galdegin zioten: Zerbait ogi dituztue? Erran  
 zioten: Zarpi. Eta jendeari manatu zion jan zodiacen  
 lurrean. Eta zarpi ogiak harturik, eskerrak bikustu  
 eta, hautsi zituen eta bere dizipuluei eman jendea  
 aintzinean ezartzeko, eta ezarri zituzten. Bartzituzten  
 arrain tiki bakhar batzu ere; hek ere benedikatu  
 zituen, eta aintzinean ezarrarazi. Eta jan zuten  
 eta ase ziren, eta sobratu ziren fusketarik alaba-  
 tu zituzten zarpi saskitara. Bada jan zutenak  
 baziren lau milaren heina, eta Jesusok etcherat  
 igorri zituen.

### Mendekostetik zarpi garren igardean

(San Mathiu, vii.)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Begira  
 zaitzte gezurrezko profetarik; hek zuen ganat  
 heldu dire ardi jauntzian, baina barnez dire  
 harrapatua daramaten otsoak. Beren fruituetarik  
 dituzte eragutuko. Elhorrietarik biltzen othe dire  
 makatsak edo lapkarretarik pikioak? Hola arbola  
 onak beti fruitu onak ekhartzen ditu, arbola  
 txarrak aldiz ekhartzen ditu fruitu txarrak. Ez  
 dezake arbola onak fruitu txarrak ekhas, ez eta

arbola txarrak ekhar fruitu onik. Fruitu onik ekhartzen  
ez duen edo-zoin arbola, pikatua izanen da eta  
surat artetikia. Beraz beren fruituetarik dituzte eza-  
gutuko. Eni, Jauna, Jauna, erraten dautaten gu-  
ziak ez dire zeruetako erresuman sarturen; bai-  
nan norik ere egiten baitu ene Aita zeruetan  
denaren nahia, hura sartuko da zeruetako  
erresuman.

Mendekostetik zortzigarren igandean

(San Luke, xvi.)

Jesusek bere dizipulueri erran zioten alegiazko ichto-  
rio hau: Baren gizon aberats bat, etche-gizon  
bat zuena; eta hau salhatu zioten nausiari, bere  
ontasunak habutzen ziotzalakoan. Eta nausiak  
deitu zuen, eta erran zion: Zer da hitaz entzuten  
dutan hori? Kondu bitur-zak hure ethegizongoaz,  
ezen ez haiteke gehiago etche-gizon izan. Etche-  
gizonak aldiz erran zuen bere baitan: Zer eginen  
dut, ene nausiak etche-gizongoa ikentzen dautanaz  
geroz? Hantzureko ez naiz on; eske ibiltzeko  
ahalge naiz. Badakit zer egin, etche-gizongotik  
khenduren nautenean, hartua izateko etche batzu-  
etan. Deitirik beraz bederazka haren nausia

zor zutenak, erran zion lehenari: Zenbat zor  
duzu ene nausia? Harek ihardetsi zuen: Egun  
hogaita-zazpi pintako olio. Eta erran zion: Orizu  
zure ageria; eta berehala jarririk, idkriba zazu:  
berrogoi-ta-hamar. Gero bertze bati erran zion:  
Eta zuk, zenbat duzu zor? Ihardetsi zion: Egun  
errege ogi. Erran zion: Orizu zure ageria, eta  
idkriba zazu: lau-tan hogoi. Eta nausiak lau-  
dorio eman zion etche-gizon ohoinari; zukurki  
jokatu zelakotz; ezen munde hunen umeak  
zukurrago-dire beren egitekoetan ezen-eg argiaren  
umeak. Eta nik erraten dautzuet zueri: Egiz-  
kitzue adichkideak zuen ontaban txarrekin,  
huden zaretenean har zaitzaztentzat betiereko  
egoitzetarat.

Mendekostetik bederatzigarren igandean.

(San Luke, XIX.)

Jesus Jerusalemrat hurbildu zenean, hiria ikus-  
tearekin, hartaz nigaz egin zuen ziolarik. Ibi,  
ezagut baheza luk ere, bederen hurea den egun  
hontan, nondik daiteken hietzat bakea. Bainan  
hori gordea dun hure begrentzat. Ehorriko ditun  
bada hietzat egunak, non hure etsoiek ingu-

ratuko bairhaute erreka bater, eta setiatuko eta her-  
tsatuko alde guztietarik. Eta buruan etzanean haitte  
hi, bai eta hi baitan diren hire umeak; eta hitarik  
ez dituen utziko harria harriaren gainean, ez duna  
lakotz ezagutu Jinkoa hire ganat jin izan den den-  
bora.

Gero temploan sarturik, hasi zen kan bal-erosian  
hari zirenen kasatzen, erraten ziotelarik: Idskribatua  
da: Ene etchea othwitezko etchea da; zuak aldiz hura  
egin dugue ohoin zilo bat.

### Mendekostetik hamargarren igandean

(San Luke, XVIII.)

Jesusek, justu zirelakoan bere buruaz hartuak ziren  
eta bertzeak inofresatzen zituzten batzueri, erran  
zieten alegiazko ichtorio hau: Bi gizon igan ziren  
temploa, othwitez egiteko: bata farisaua, eta bertzea  
publikanoa. Farisauak, chutik, othwitez hau egiten  
zuen bere baitan: Jinkoa, eskerrak daukitzut,  
ez naizelakotz bertze gizonak bezala, harrapatuaren  
eremacle, bertzen ontasunaren eta emarteanen har-  
tzaila, ez eta publikano hori bezalakoa. Barur egiten  
dut astean bitan; ditudan guztietarik hamar-  
garren bat ematen dut. - Publikanoa aldiz, urrun



46  
gelditua, et-zen begien altchatzerat ere mentu-  
ratzen. baina bere bulharrak jotzen zituen,  
ziolarik; Jinkoa, urrikal nakizu, lekhatososa ni.  
Diotzuet: Hau barkhamenduarakin jutsi zen  
bere etxerat, eta hura ez; zen goratzen diren  
guziak izanen dire aphauduak, eta aphaltzen  
direnak goratuak.

Mendekostetik samuelagarren igandean  
(San Marke, vii.)

Jesus, utzirik Ebreko mugak, Tsidonen gaindi  
etxerri zen Galileako itas-alderat, Dekapokoko  
lurren erditik. Eta etxerri zioten gizon bat el-  
khorra eta mutua; eta otziztu zuten eskua  
eman zezan haren gainean. Eta jendotarik  
berech eremanik, bere etxiak ezarri zizkan  
beharricitan, eta aho-gozoz ukitu zion mihia.  
Eta zerurat beha, hats gorapen baten ondotik,  
erran zion: Effeta, hori da: Idek hadi. Eta ordu  
burean icedi ziren haren behariak, eta hautsi  
zen haren mihiko lokarria, eta mintzo zen  
garbiki. Eta manatu zioten nikori ez errateko.  
Bainan harek gehiago mana, eta hek gehiago  
zuten erreplikatzin. Eta gero ta-gehiago goretzen

47  
zuten, ziotelarik: Ederki oro egin: elkhoneri adiarazi  
diote, eta mutuak mintzarazi ditu.

Mendekostetik hamabigarren igandean  
(San Luke, x.)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Dokatu  
zuek ikusten dituzuenak ikusten dituzten bezia.  
Ezen diotzuek, profeta eta errege hainitzek nahi  
izan dituztela ikusi zuek ikusten dituzuenak,  
eta ez dituzte entzun. Eta hune non legearen  
irakasle bat chutitu zen, hura zertan kausi, zio-  
larik: Nausia, zer eginez ardietsiko dut betiereko  
bizitzea? Jesusek erran zion: Legean zer da  
iskribatua? Zer irakustzen duzu? Harek ihar-  
detsi zion erranez: Maitatuko duzu zure jinka  
Jauna zure bihotz guziaz, eta zure arima guzi-  
az, eta zure indar guziez, eta zure gogo guziaz,  
eta zure laguna zure burua bezala. Eta erran  
zion: ongi ihardetsi duzu; hori egizu eta biziko-  
zare. Harek aldir, nahiz bere burua edertu, erran  
zion Jesusi: Eta nor da ene laguna? Eta ihardetsi  
zion Jesusek, erranez: Gizon bat jausten zen Jeru-  
salemetik Jerikorat, eta erori zen ohoimen arterat,  
eta kamik biluzi zuten, zauriz estali, eta, erdi-

hila utzirik, joan ziren. Bada gertatu zen  
 aphez bat bide beraz justea, eta hura iku-  
 si-ta, jo zuen aintzinat. Halaber lebitar  
 batek ere, toki hartarik hurbil zelarik, kan  
 ikusi zuen eta joan zen aintzinat. Lama-  
 ritas bat aldiz, bidean zoalarik, etxoari zen  
 haren ondorat; eta, hura ikustearekin, urri-  
 kabdu zitzaion. Eta hurbildurik, lotu ziozkan  
 zauriak, oliz eta arnoz gantzutuz, eta egarri-  
 rik bere abrearen gainean, ostatu baterat  
 ereman zuen, eta hartaz arta hartu. Bihora-  
 munean, ateratu zituen bi denario, eta ostak-  
 rari eman, erranez: Bosta izan zazu hartaz;  
 eta zer ere gehiagokorik chakutuko baituztu,  
 nik gibelat ethortzearekin, behurtuko dautzut.  
 Hone horietarik zoin iduri zaitzu izan zela  
 ohoimen arterat erori zenaren laguna? Eta  
 ihardetu zuen: Hura urrikari izan zuena.  
 Eta Jesussek erran zion: Loaz, zuk ere egizu  
 orobat.

Mendekostetik hamahirugarren igandean.

(San Luke, XVII.)

Jesus, Jerusalemrat zoalarik, iragaiten zen

Tamariaren eta Galilearen artean. Eta nola herri batean sartzerat baitzoan, bidet atera zitezazkon hamar lepradun, eta urrun geldituztik oihuz hari ziren, ziotelarik: Jesus, Nausia, urrikal gabizkitzu.

Ikusi zituenean, erran zioten: Loazte, ager zaitzete aphezari. Eta gertatu zen, bazoatzilarik garbituak izan zirela. Bada hetarik bat, ikusi zuenean garbitua zela, gibelat itzuli zen, jinkoa goraki laudatzen zuenarik. Eta ahuspuz erori zen Jesusen oinetarat, eskerrak behurtzen ziotzalarik, eta hura Tamaritarra zen. Eta Jesusak ihardetu zion, erranez: Ez dire-a hamarrak sendatu? Bertez bederatziak non dire? Ez da aurkitu, itzuli denik, eta jinkoari ohore eman dionik, arrotz hau baizik. Eta erran zion: Chute zaitte eta zoaz, zure sinbestak salbatu baitzaitu.

### Mendekostetik kamaulaugarren igandean.

(San Mathieu, VI.)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Nihork ez ditzarke bi nausi zerbitza; alabainan edo bat lasto iganen du eta bertzea mantatuko, edo bat okoratu du eta bertzea mesprezatu du.

Ez dezaguetzue zerbitza jinkoa eta dirua. Horren-  
 gatik erraten dautzuet: Et-zaitetzela kechu izan,  
 zer janen dukezen bizitzeko, ez eta ere zuen  
 gorpulutza nola jauntziako dukezen. Bizia ez de-  
 a jana baino gehiago, eta gorpulutza jauntzia baino  
 gehiago? Ikus-atzue zeruko hegastinak, ez baitute  
 erruten, ez urtarik egiten, ez belhaructarat biltzen,  
 eta zuen bita zerukoak hartzen ditu hek. Zuek  
 ez othe zarete hek baino hainitz gehiago? Berriz  
 zuetarik norik, zenbat-nahi lehiatzen ~~ere~~ ere, bere  
 burua luza dezake beso batez? Eta jauntziar zer-  
 tako zarete kechu? Ikus-atzue larretako liliak,  
 nola diren handitzen, ez dire laborantzian hari,  
 ez eta iruten. Bada erraten dautzuet, ez eta Salomon  
 ere, bere edergailu guzietan, et-zela jauntzia  
 horietarik bat bezala. Baldin beraz larreko  
 belhar, egun han dena, eta bihar laberat artekia  
 izanen dena, jinkoak hola jauntzen badu,  
 zenbater hobeiki ~~et~~ et-zaituzte eginen zuek, sinhes-  
 te ttirikoa. Et-zaitetzela beraz kechu izan,  
 diozuelarik: Zer janen dugu edo zer edanem,  
 edo zer jauntziem? Ezen horiek guzirik fraga-  
 noek dituzte bilhatzen. Bainan zuen bitak  
 badaki horien guzian beharretan zaretela. Bilha

zaguz bezaz lehenik jinkoaren erresuma eta  
harek manatu zuzentasuna; eta horiek guztiak  
emanen zaizkitzue populu bezala.

Mendekostetik hamabostgarren igandean

(San Luke, VII.)

Bagoan Jesus Naim deitzen den hirirat, eta harekin  
zozatzen dirizipuluak, eta jendez leher. Bada, hiriko  
atzerat hurbiltzen zelarik, huna non bazaramaten  
hil bat, bere amaren ume bakharra; eta alhar-  
guntza zen ama, eta harekin bazen hiriko jende  
hainitz. Tona hori ikusi zuenean, Jesusok,  
urrikaldurik, erran zion: Et-zazula nigarririk egin.  
Eta hurbildu zen, eta ukitu zuen kacha. (Garrai-  
atrakak aldir gelditu ziren.) Eta erran zuen:  
Gizon gaztea, manatzen dautzut, jeki zait. Eta  
jarri zen hila zena, eta mintzatzen hasi. Eta  
Jesusok eman zion bere amari. Beldurrak hartu  
zitzen oro, eta jinkoa goretzen zuten, zistelarik: Bai;  
profeta handia jeki da gut tartean; eta jinkoa  
etxori da bere populuaren ganat.

Mendekostetik hamaseigarren igandean

(San Luke, XIV.)

Nola larunbatarekin Jesus sartzen baitzen Parisian  
 en buruzagi baten etxean oziaren jateko, hainik  
 barrandatu zuten. Eta huna non gizon hidropiko  
 bat aurkitu zen haren aintzinean. Eta Jesusak,  
 lege irakasleri eta Parisaereri mintzo zelarik, erran  
 zuen: Abairu de-a larunbatarekin sendatzea?  
 Bainan hek ichilik egon ziren. Jesusak aldiz hartu  
 zuen, sendatu, eta igorri. Eta heieri mintzo, erran  
 zuen: Tuetarik work, abtoa edo idia putzurat ero-  
 tzen bazaiot, ez du berehala ateratuko larunbat  
 egunarekin? Eta horren gainean et-zeroketen ihar-  
 deta. Jesusak aldiz, ikusiz nola gomitatuek lehen-  
 biziko jar-lekuak hautatzen zituzten, alegiazko  
 ichtorio hau erran zioten, holaket: Eztaietarat gomi-  
 tatea izanen zarenean, ez jar lehenbiziko tokian,  
 beldurrez eta zutaz gorago izan dadien  
 gomitatuek, eta etxor dadien zu eta hura gomitate  
 zaituztena, eta erran diezazun: Enozu huri tokia,  
 eta orduan abia zaitzen gorriturik azken tokiaren  
 hartzerat. Bainan gomitatua izanen zarenean, zozak  
 jar zaito azken tokian, gomitate zaituenak, heldu  
 demean, erran diezazuntzat: Adichkidea, izan  
 zaito gorago. Orduan izanen duzu ohore zurekin  
 jarriak direnen aintzinean: pren beti, goratzen

dena iranen da aphaidua, eta aphaltzen dena goratua.

Mendekostetik hamazazpigarren igandean

(San Matheu, XXII.)

Hurbildu zitzaizkon Farisauak Jesusi, eta hetarik legearen irakaste zen batek galdegin zion, haren frogatzeko: Auzia, zoin da legeko manamendu handia? Jesusak erran zion: Maitatuko duzu zure jinko Jauna zure bihotz guziaz, eta zure arina guziaz, eta zure gogo guziaz. Hori da manamendu handiena eta lehena. Bigarrena aldiz hori iduria da: Maitatuko duzu zure laguna, zeroni bezala. Bi manamendu horien datchiko lege guziaz, bai eta profetak. Eta Farisauak bilduak zaudenarik, galde bat egin zioten Jesusak, erranez: Zer zaitzue Kristoz? Noren seme da? Erraten diote: Dabiden. Eta Jesusak heieri: Nola beraz Dabidek, Izpirituak mintzaraziz, deitzen du Jauna, dienean: Jaunak erran dio ene jaunari: jar zaitzue ene eskuinean, nik zure etxerik ezarri aste zure oin-peko alki? Baldin beraz Dabidek deitzen bade Jauna, nola da haren seme? Eta nirek etzertaketen hitzik ihardetsi, eta egun hartarik goiti.



54  
et. zen gehiago nihoi hari deusem galdetzerat  
atxehitu.

Mendekostetik hemerortzigarren igandean  
(San Matheu, IX.)

Untzichka baterat iganik, Jesus joan zen itxasaz  
bertze alderat, eta bere kirisat ethorri. Eta huna  
non aintzinean ezarri zioten paralitiko bat  
okean etzana. Eta, heien sinhestea ikusirik,  
Jesusék erran zion paralitikoari: Izan konfiantza,  
ene kaurra: barkhatuak zaizkitzu zure bekkhatuak.  
Eta huna non ikriban zenbeiték erran zuten  
beren baitan: Hunek blasfemia dio. Eta Jesusék  
ikusirik heien gogoetak, erran zuen: Zer gatik ditu-  
tzue gogoeta gachtoak zuen bihotzetan? Zer da  
errekego, erratea: Barkhatuak zaizkitzu zure bekkhatuak,  
ala erratea: jeki zaité, eta ibil. Bada, jakin dezazuen-  
trat gizonaren semeak baduela hurrean bekkhatuen  
barkhatzeho ahala: jeki zaité, erran zion orduan  
paralitikoari, har zazu zure ohea, eta zoaz zure  
etxerat. Eta jeki zen, eta joan bere etxerat. Eta  
hori ikustearekin, jende guzia harristu zen; eta  
goretzi zuten jinkoa, kolapso ahala eman zio-  
telakotz gizoneri.

Mondekatetik hameretzigarren igandean

(San Matheu, xxii.)

Jesus mintzo zitzaionen aphez-nausieri eta farisau-  
 eri alegiazko ichtosiotan, erranez: Zeruetako erre-  
 sumak iduri du errege bat, bere semearen  
 eztaiak egin zituen. Eta igorri zituen bere sehiak  
 gomitatuen eztaietarat deitzerat; eta et-zuten nahi  
 etborri. Berriz igorri zituen bertze sehi batzu, zio-  
 larik: Erroquete gomitatuesi: Hura non ene baz-  
 karia prestatu dutan; ene itiak eta arienda  
 gizenduak hilak dire, eta oro prest: Loartze  
 eztaietarat. Bainan hek et-zuten acholarik izan; eta  
 joan ziren, nor bere bazter-eterat, nor bere  
 tratuatarat. Bertzek aldiz haren sehiak hartu  
 zituzten, eta laidoztatu ondoan hil. Bada erregea,  
 aditu zuenean, hasarretu zen; eta, bere soldaduwak  
 igorriarik, garbitu zituen gizon hiltzaile hek, eta heien  
 horia erre zuen. Orduan erran zioten bere sehiari:  
 Eztaiak eiki prestatuak dire; bainan gomitatuek  
 zirenak ez dire gai izan. Loarte beraz bida burue-  
 tarat, eta atzemanak oro deit zatzue eztaietarat.  
 Eta bidetarat ateraturik, haren sehiak atzemanak  
 oro, on eta gachto, bildu zituzten, eta jarri zirenek  
 bertze zuten eztaietako mahaina. Erregea aldiz sartu

zen jarriak zirenen ihusteko; eta ikusi zuen kan  
 gizon bat eztaietako jauntzia boinean et-zuena.  
 Eta erran zion: Adidhikilea, nola sartu zare hanat  
 eztaietako jauntzia gabe? Bainan hura ichilegon  
 zen. Orduan erregiak erran zisten bere gizonari:  
 Lango besoak loturik, artik-azue kanporo ikhun-  
 betarat; han izanen da marraska eta hortz-karras-  
 ka. Ezen hainitz bada deiturik, guti ordean hau-  
 taturik.

Mendekostetik hogoiarren igandean  
 (Jon Doni Joani, IV.)

Antzindari bat bazen semea erri zuena Kafarnaumen  
 Harek aditu zuenean, Jesus heldu zela Judeatik  
 Galilearat, joan zitzaion, eta othoiztu zuen jauts  
 zadien, eta senda zezon semea: ezen hil irrana  
 zen. Bada Jesusok erran zion: Non ez duzuen mira-  
 kuiturik eta harritzeko gauzarik ikusten, ez duzue  
 sinhesten. Antzindariak erraten dio: Jauna, jauts  
 zaitz ene semea hil baino lehen. Erraten dio Jesu-  
 sek: Zure semea sendo da. Sinhesti zuen gizonak  
 Jesusok erran zion hitza, eta joan zen. Eta bide-  
 an zualarik, ethorri zitzaizkon sehiak, eta berria  
 eman zioten, sendo zuela semea. Galdegin zioten

54  
beraz zer tenorez hobekitu zen. Eta erran zioten: Batzuek  
zarzigarren oronean, utzi du sukharrak. Ezagutu  
zuen beraz aitak hura zela tenorea, non Jesusak  
erran baitzion: Zure semea sendo da. Eta sinketsu  
zuen, eta haren etcheko guzirik ere bai.

Mendekestetik hogei- ta batgarren igandean.

(San Mathieu, XVIII.)

Jesusak bere dizipulueri erran zioten alegiazko ikhto-  
ria hau: Zeruetako erresumak iduri du errege  
bat, kondrak egin nahi izan zituen bere sehiakin.  
Eta hazi zenean kondren egiten, ekharri zioten bat  
bat mila talenta zor ziozkana. Baitan nola ez  
baitzuen nondik behar, haren nausiak manatu  
zuen, hura, eta haren emaztea, eta haurrak, eta  
zituenak oro saltzea, eta zorra kentzea. Seki hura  
aldiz, ahuspez emanik, othoizka hari ziztaion, erranean.  
Igurika narazu, eta guziak bihurtusen daukitzute. Bada  
urrikaldu ziztaion nausiari sekia hura, utzi zuen,  
eta zorra barkatu zion. Seki hurek aldiz, ateratze-  
arekin, kausitu zuen bere sekia lagunetarik bat,  
ehun denario zor ziozkana. Eta loturik ithotzen  
zuen, ziolarik: Bihur-zak zor dukana. Eta sekia  
laguna, ahuspez emanik, othoizka hari ziztaion,

erranean: Igarika narazu, eta garziak bihurtzen dauz-  
kitzut. Harek aldiz et-zuen nahi izan; bainan joan  
zen eta igorri zuen preso, zor zuena bikintu artearaino.  
Bada sehi lagunak, zer gertatzen zen ikustearakin,  
bihotz-min handia izan zuten; eta ethorri ziren,  
eta beren nausiari hondatu zizkaten gortatu zirenak  
oro. Orduan hura deitu zuen bere nausiak, eta eran-  
zion: Sehi guztia, zor guzia barkhatu dauiat, ethorritu  
naukalabotz. Ehuen-a hiek ere hira sehi laguna urrikari  
izan behar, nik hie urrikari izan hautan bezala?  
Eta bere hasarrea nausiak eman zuen buruegoen  
eskuetarat; zor zuena oro bihurtu artearaino. Hola-  
hola eginen dauzque ene etita zerukoak, baldin  
ez badituzque bat-bederak zuen nausiari bihotz guziz  
barkhatzen.

Mendekostetik hogi-ta bigarren igandean.

(San Mathiu, xxii.)

Joan ziren Farisauak, eta elgar aditu zuten  
Jesus bere hitzetarik atxemateko. Eta igortzen  
diazkate beren diripuluetarik Herodiatar batzue-  
kin, erraterat: Nausia, badakigu egiaz mintzatzen  
zarela, eta jinkaren bidia dena-den irakusten duzu-  
la, eta et-zarela nihortaz bechu, ez duzulabotz

nor nor den behatzen. Eran izaguzen beraz  
zer zaitzun: Haiza de-a, ala ez, Tezari zerguren  
ematea? Jesusak aldiz eragutzen zuelakotz heien  
gachtakeria, erran zioten: Alegia onak, zertako  
bilhatzen nauzue? Irakutsi izadazue zergako  
dirua. Eta hek aintzinerat eman zioten denario bat.  
Eta Jesusak erraten diote: Obrenak dire potret hau,  
eta izena? Thardesten diote: Tezarenak. Orduan  
erraten diote: Bihur zotzue beraz Tezarenak  
direnok Tezari, eta jinkoarenak direnak Jinkoa-  
ri.

Mendekostetik hogoi-ta hirugarren igandean  
(San Mathieu, IX.)

Jesus jende multzu bati mintzo zelarik, huna  
non hurbildu zen aintzindari bat, eta adoratu  
zuen, ziolarik: Gauna, ene alaba oraitzet hil  
da. Boinan zato, ezar-azue zure eskua haren  
gainean, eta biziko da. Eta huttituzik Jesus  
jarraiki zitzaion, eta haren dizipuluek ere bai.  
Eta huna non emazte bat, hamar urthe har-  
tan odol galtzez eri zena, hurbildu zen, eta  
ukitu zion boinekoaren hita. Ezen erraten zuen  
bere baitan: Ukitzen badut haren boinekoa

bederen, sendatua izanen naiz. Eta Jesusk  
itzularik eta ikusirik, erran zion: Ezan zazu  
konfiantza, haurra, zure sinbestek sendatu  
zaitu. Eta sendatua izatu zen omaztea ordu  
beretik. Eta Jesus heldu zenean aintzindariaren  
etxerat, ikusirik chirdariak eta jendez leker har-  
ramantzake, erran zioten: Loazte hemendik,  
ezen nechka ez da hila, bucinan bo dago. Eta irri  
egiten zioten. Eta jende hek aterarazi zituztonean,  
sartu zen, eta hartu zion eskua. Eta chutitu zen  
nechka. Eta horren haroak jo zuen bazter he-  
tarat gurziatarat.

Mendekostetik hogi-ta laugarren igandean.

(San Mathin, xxiv.)

Jesusk erran zioten bere diripulueri. Teusiko  
durzinean Daniel profetak aiphatu izan duen  
lastimazko desmasia toki sainduan dela (ira-  
leurtzen duenak adi beza): Orduan, Judean  
direnak ihesi dohatzila mendetatarat. Eta teilatuan  
dena ez bedi jints bere etxetik zerbeiten har-  
tzerat, eta landan dena ez bedi itzul bere mi-  
nekoaren hartzerat. Lorigantz aldiz egun hetan  
haurra sabelean edo bulharrean duteneri.

Othotz egizue bada, zuen ihesi-joatea gerta ez  
 dadien neguarekin edo larunbatarekin. Alabainan  
 handia izanen da orduko heretura, kalakorik  
 ez baita izan munduaren hastapenetik orai arte,  
 eta ez izanen. Eta baldin laburtuak ez balire  
 egun hek, ez laiteke salba gizon bikirik; bainan  
 hautetsien gatik laburtuak izanen dire egun hek.  
 Orduan norbeitik erraten balautzue: Huna, hemen  
 da Kristo, edo han, et-zazuela sinhets. Ezen je-  
 kiren dire Kristo eta profeta gezurrezkoak, eta  
 eginen dituzte ikusgarri handiak eta harritzeko  
 gauzak, hainbertze non hautetsiak berak (ahal  
 balitz) makurerat bid baitetzazkete. Huna nik  
 zueri aintzinetek erraten. Beraz erraten badau-  
 tzete: Huna non den mortuan, ez ilki; huna  
 barne batean, ez sinhets. Ezen nola chimizta  
 iguzki-aldetik ilkitzen baita eta agertzen men-  
 deakraino, hala izanen da gizonaren semea-  
 ren ethortzea ere. Non-nahi izan dadin hili-  
 kia, karat bilduko dire arranoak. Bada egun  
 hetako hereturaren ondotik berehala, iguzkia  
 ihunduko da, eta hilargiak ez du emanen bere  
 argia, eta izarrak ororiko dire zuzetek, eta  
 zuzetako bothereak kordekatua izanen dire.



Eta orduan agertuko da gizonaren Semearen  
 bandera zeruan, eta orduan marraskaz harriko  
 dire lurreko jendetze guztiak, eta ikusiko dute  
 Gizonaren Semea heldu zeruko hedoren gaine-  
 an indar eta distiradura handirekin. Eta  
 igorriko dituz aingeruak azantz handiko turru-  
 tarekin, eta bilduko dituzte haren hautetsiak  
 lau haizetarik, zero hegitik eta bertze bururaino.  
 Badau pluko ondotik har zarue konfekarantza: Haren  
 adarrak jadanik gurituak direnean, eta hostoak  
 sortuak, badakizue hurbil dela uda. Halaaber  
 zuek ere horiek guztiak ikusten dituztuenean,  
 jakin zarue hurbil dela atxean. Egiaz derratzen  
 gizalde hau ez dela iraganen, non horiek guztiak  
 ez diren gertatzen. Zeru-hurrak iraganen dire,  
 baina ene hitzak ez dire iraganen.

~~~~~

Obligazioezko phesta  
buruetako  
ebanjelioak

+ Eguberri  
1 (Gauerdiko mezan)  
(San Luke, 11.)

Ilki zuzen Tezar Augusten manu bat, mundu gu-  
zian izenen hartzeke. Lehenbiziko izen hartze  
hori egin zuen Tirino, Tiriako buruzagiak.  
Eta bazoatzin oro izenaren emateat, bakotcha  
bere herrirat. Bada Josep ere Galileatik, Nazza-  
retako hiritik, igan zen Judearat, Betseleme  
deitzen zen Dabiden hirirat, Dabiden etxetik  
eta odolatik zelakotz, izenaren emateko Maria  
bere emazte haur beharretan zomarekin. Eta ge-  
tatu zen, han zirelarik, bethe zitzaizkola  
hauraren izateko egunak. Eta mundurat eman  
zuen bere seme lehen-bortua, eta chatarrez in-  
guratu zuen, eta etzan othalako batean, et-gela-  
kotz heientzat tokirik ostatuan. Bada inguru  
helan baziren artzainak, gauaz aldizkatuz atzar-  
ririk zagotzainak beren artaldearen zain. Eta  
huna non Jinkoaren aingerua elhori zitzaiz-

sten aldekat, eta zerutikako argi batek inguratu  
 zituena, eta izialdura handi batek hartu. Eta  
 erran zuten aingeruak: Et-zaitetzela izi. Hone  
 non ekhartzen dautzuetan berri bat, populu gu-  
 ztiarentzat bozkario handia izanen dena: Gau,  
 Daviden hirian, sortu zaitzue Salbatzailea,  
 hura baita Kristo Jauna. Eta hunkarik eragu-  
 turen duzue: Kausituko duzue haur bat chatas-  
 rez inguratu, eta othalako batean ezarria. Eta  
 orde berean aingeruarekin aurkitu zen zeruko  
 armadatik multzu handi bat, eta jinkoa lau-  
 datzen zuten, ziotelarik: Loria jinkoari zoru  
 gorentan, eta lurrean bakea borondate one-  
 ko gizoneri.

### + 2 Meza nausian

(Jon Doni Joani, 1.)

Haste-hastetik zen Hiltza<sup>1</sup>, eta Hiltza jinkoaren  
 baitan zen, eta jinka zen Hiltza. Hura haste-  
 hastetik jinkoaren baitan zen. Oro hasen bidet  
 eginak izan dire, eta hura gabe ez da egin deus  
 egin denik. Haren baitan zen bizia, eta bizia  
 gizonen argia zen. Eta argian ilhumbetan ar-  
 gitzen du, eta ilhumbek ez dute eraguti. Izatu

<sup>1</sup> Hiltza da Semea, Erimitate suinduko bizarren presona.

da gizon bat Jinkoak igorria, izena zuena  
 Joanes. Hura ethorri zen lekukotzat, argiari le-  
 kukotasun emateko, haren bidez orok sinheste  
 zezatentzat. Hura et-zen argia, baina bai  
 argiari lekukotasun emateko. Haur zen  
 argi egiazkoa, mundu huntarat dathortzin  
 gizon guziak argitzen dituen. Munduan  
 zen, eta mundua harek egina da, eta bere  
 jendeak ez dute onhestei. Baina hura onhestei  
 duten guziri, haren izenean sinheste duteneri,  
 eman diote Jinkoaren ume bilhakatzeko  
 ahala. Haurk ez die ez odoletik, ez haragia-  
 ren nahitik, ez gizonaren nahitik bostuak,  
 baina bai Jinkoaren ganik. Eta Hbitza  
 haragi egin izan da, eta egote da gure artean,  
 eta ikusi dugu haren loria, Aitaren seme  
 bakhar graziaz eta egiaz bethea denari doakon  
 loria.

+ Salvatoroz

(San Marke, xvi.)

Mahainean zirelarik hametaka apostoluak, ageritu  
 zitzaizten Jesus; eta gairkita zituen bere  
 sinheste eskasaz eta bikotz gogortasunaz, hura

fuztu zela ikusi zutenak sinkethi et-zituzte-  
 lahotz. Eta erran zioten: Loazte mundu guzian  
 baina, predika zozute Ebanjelioa diren guziosi.  
 Sinkethiko duena eta batxaiatua izanen dena  
 salbatua izanen da; aldir, sinkethiko ez duena  
 damnatua izanen da. Eta sinkethiko dute-  
 neri jarraitzen zaurkote mirakulu hauek: Ene  
 izenean debrua kasatuko dituzte; mintzaira  
 berri mintzatuko dira; sugeak erabiliko dituz-  
 te; eta hiltzeko zerbeit edaten badute, ez diote  
 kalterek eginen; erien gainean eskuak ezarriko  
 dituzte, eta sendatuko dire. Eta Jesus Jauna he-  
 rri mintzatu ondoan, alchatu zen zerurat, eta  
 jarria dago jinkoaren eskuinean. Bada hek  
 joan ziren, eta predikatu zuten barter guzie-  
 tan, jaunak logunduz, eta indar emanaz heien  
 hitzari jarraititzen zitzaizkon mirakuluez.

+ Andre-dena Maria Abortukoan  
 (San Luke, x.)

Jesus sartu zen herri batean; eta Martha deitzen  
 zen emazte batek hartu zuen bere etcherat. Eta  
 hunket bazuen ahizpa bat, Maria deitzen zena,  
 eta hau, Jesusen oinetan jarrirek, haren hitza-

ren entzuten zagon. Martha aldiq herat. kumat  
 zabilan gauza askoren prestatzen; gelditu zen,  
 eta erran zuen: Jauna, daut ez-zaitzu, ene abiz-  
 pak bakharrik uzten bainan ororen prestatze-  
 rat! Erorzu bada lagun neran. Eta jaunak ihar-  
 detsi zion, erranez: Martha, Martha, baduzu grina,  
 eta haintz gauzaz zare kechatzen. Bada bakhar bat  
 da baitz padakoa. Maria hantatu du eskualderik  
 hobereana, eta et-zais khendua izanen.

+ Omia sainduz

(San Mathie, v.)

Jendeketa hura ikustearakin, Jesus izan zen men-  
 dirat, eta jarri zenean, hurbildu zitzaizkon bere  
 dirjipuluak. Eta ahoa idekirik irakaspenak emat-  
 ten ziozkaten, erranez: Dokatu gogoz beharrik,  
 zeren heina baita zeruetako erresuma. Dokatu  
 ezteak, zeren jabe izanen baitire lurraz. Dokatu  
 nigarez dagotzinak, zeren kontsolatuak izanen  
 baitire. Dokatu zuzen denaz gose eta egarri ditse-  
 nak, zeren aseko baitire. Dokatu urrikalmen-  
 dutsuak, zeren berek ardieleko baitute urri-  
 kalmendu. Dokatu bihotzez garbiak, zeren  
 jinkoa ihuseen baitute. Dokatu baketiarrak,

68  
zeren jinkoaren ume deitua izanen baitire.  
Dohatsu zuzenaren gatik gachtakeriak jasanen  
dituztenak, zeren keina baita zeruetako  
erresuma. Dohatsu izanen zarete, madarikatuko  
zaituztenean, eta gachtakeriak eginen dauzki-  
tuztenean eta zernahi gauzki geruzrez erabiko  
dutenean zuen kontra ene gatik. Bozkaria  
zaitzte eta jauz, zeren zuen saria nasaia  
baita zeruetan.

Beti igandarekin egiten diren  
phestetako elanjelioak<sup>1)</sup>

+ Maria bekhaturik gabe kontzebituaren  
phesta  
(San Luke, I.)

Gabriel aingura igorri zuen jinkoak Galileako

(1) Phesta hautan badire sei - Erufania, Phesta-Berri, Kristo-Erege, Jon Domi Petri, Andre-Dena Mariaren sortzea, eta Maria bekhaturik gabe kontzebituaren phesta, - igandeari kanpo erortzen direnak, edo oroz ditazkenak. Baiman heien meza-nauti bat beti igandarekin ~~ematen~~ ematen da: igandarekin heldu badire, egun hartan berean; astelegunarekin heldu badire, ondoko igandean.

nota



hiri Nazarete deitzen zen batetarat birjina  
 baten ganat. hau ezkondua zen Josep dei-  
 tzen zen Daliden etxetikako gizon batekin,  
 Eta birjinaren izena zen Maria. Eta ainge-  
 ruak, haren ganat sartarik, erran zion:  
 Agur, graziaz bethea, jauna da zurekin,  
 benedikatua zara emazten artan.

+ Benjamin

(San Matheo, II.)

Non Jesus sortua baitzen Betelme Judakoan,  
 Herodes erregearen egunetan, huna non mago  
 batzu Iuzki-aldeetik etorri ziren Jerusalem-  
 rat, ziotelarik: non da sortu Juduen erregea?  
 Etabainan ikusi dugu haren izarra Iuzki-  
 aldean, eta haren adoratzerat galkorizki. Bada  
 hori aditzarekin, Herodes erregea asaldatazen,  
 eta Jerusalem gortia harenkin. Eta bildurik

71  
aphez-nausirik eta popularean iskribauak,  
galdegin zioten non sortzekeoa zen Kristo. Eta  
hek erran zioten: Beteleme judakoan. Ezen  
hala iskribatua du Profetak: Eta hi, Beteleme,  
judako lurra, ez haiz segur chumena judako  
lehenbizikoan artean; ezen hitarik duk aterako,  
Israelgo ene popularean manatuks dion aintzina-  
daria. Oduan Herodesek, ichilka deiturik  
magoak, artoski ikasi zuen heien ganetik noiz  
agerta zitzaisten izarra. Eta Betelemecat igor-  
tzen zituelarik, erran zioten: Loazte, galde  
zatzue artoski hauraren beerrak; eta kausitu  
dukeruenean, gaztia uzadazue, nathorrentzat  
ni ere haren adoratzerat. Hek, errege entzun-  
eta, aliatu ziren; eta huna non Izurki-alde-  
an ikusi zuten izarra heien aintzinean zean,  
haurra zen tokiaren gainerat heldzearekin han  
gelditu artio. Bada izarra ikustearekin, boztu ziren  
bozkaris hainitz handiz. Eta, ethean sarturik,  
kausitu zuten haurra Maria bere amorekin, eta  
ahuspoz emanik adoratu zuten; eta beren kutchak  
idekinik, eskaini ziorkatzen emaitzak: urhea, it-  
sentua, eta mirra. Eta lo zaudelarik izanik He-  
nodesen ganat ez behurtzeke megua, bertze bide

batetarik itzali ziren beren herrirat.

+ Erufaniatik bigarren igandean  
(San Luke, II.)

Jesusen Izen Sainduaren phestan.

Lortzi egun bethe ziren ondoan, haurrari zirkon-  
zizioarean egiteko, eman zioten izena Jesus,  
aingurusk eman zion izena amaren sakelean  
sortu baino lehen.

+ Erufaniatik hirugarren igandean  
Familia Sainduaren phestan.

Erufaniatik lehen igandean bezala, 8 garren plaman

+ Phazkotik hirugarren igandean  
(San Luke, III.)

Bada gertatu zen, populu guzja bathaiatzon zela-  
rik, eta Jesus bathaiatu ondoan olhoitzean  
zagolarik, zerua zabandu zela. Eta Ezpiritu  
Saindua jausti zen haren ganat gorpukutz ithu-  
ran, usoa iduri; eta mintzo bat egin zen  
zerutik: Tu zare ene seme maitia, zu bai  
tan dut ene gorroa. Eta Jesusok, predikatzen  
abiatzean, bazituen hogoi-ta hamar urtheren

heina, eta, uste zutenaz, Josepen seme zen.

+ Trinitatez

(San Matheu, XXVIII.)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Eni emanak  
izan zaizkit ahal guztiak zervan eta lurrean.  
Goazte boraz, argi zatzue jendetze guztiak, bathais  
aitaren, eta semearen eta Izpiritu Santuaren  
izenean. Irakatsi-ozute nik zuei manatu gu-  
ztiak begiratzen. Eta huna non neroni zuekin  
naizen egun oroz, menderen akabantzaino.

+ Phesta-berriz

(Jon Joni Joni, VI.)

Jesusek erran zioten bere dizipuluei: Judeako jende  
mutzu bati: Ene haragia egiazko janari da, eta  
ene odola egiazko edari. Ene haragia jaten eta  
ene odola edaten duena, ene baitan dago, eta ni  
saren baitan. Ojala bizia duen aitak igorri bai-  
nau, eta ni aitaren ganik bizit bainariz, hala  
ni jaten nauena, hura ere biziko da ene ganik.  
Iban da zerutik jautsi den ogia. Ez zuen arbasok  
jan zuten manna bezalakoa, gero hil baitziren.  
Ogi hau jaten duena biziko da betiere.

+ Bihotz Sakratuaren Arestan

(Jon Doni Joani, XIX.)

Juduek, larunbat bezpera zelakotz, gorpuztak gurutzearan egon et-zitezentzat larunbatetikin (ezen handia zen larunbat egun hura), Pilatus othoiztu zuten zangarrak hautsaroz ziotzoten, eta khenaraz zebiran. Joan ziren beraz soldadobak, eta hautsi zituzten lehenaren zangarrak, bai eta harekin gurutzefikatua izan zen bertzearenak. Baina Jesusen ganat heldu zirenean, ihusirik jadanik hila zela, et-ziozkaten zangarrak hautsi. Baina soldadobatarik batek lantzag ideki zion saketsa, eta berehala jaldi zen odol eta ur. Eta ikusi duenak eman du lekukotasuna, eta egiazkoa da haren lekukotasuna; eta harek badaki egia erraten duela, zuek ere sinhetu dezazuen. Horiek oro gertatu dire, Liburu Sainduko hitz hau belhe zadin: Ez diozue kezurrik hautsiko. Eta bertzalde Liburu Sainduak dio: Behatuko diote berek zibkatu izan dutenari.

+ Jon Doni Petriz  
(San Matheu, xvi.)

Jesus etxori zen Filipe Tezareako aldekarat,  
eta galdetu zioten bere dizipulueri: Nor diote jen-  
dek dela gizonaren semea? Eta hek erran zioten:  
Batzuek Joanek-Batichita, bertzek aldiz Elias; bertze  
batzuek aldiz Jeremias edo profetatarik bat. Jesu-  
sek erraten diote: Eta zuek, nor nairzela diozue?  
Thardetu zion Simon Petrik, erranez: Zu zare  
Kristo, jinko biziairen semea. Eta Jesussek ihar-  
detu zion, eta erran: Dokatu zare, Petri Joa-  
nesen semea, zeren ez baitaitezte haragiak edo  
odolak hori eragularazi, baina bai ene hitza  
zeruetan denak. Eta nik erraten dautzut, zu  
zarela Petri - Harri-, eta harri horren gaine-  
an jarriren dutala ene Eliza, eta iferruko  
atkeak et-zairkola gainenduren. Eta zuri ema-  
nen dauzkitezut zeruetako erresumako gakkhoak,  
eta zer ere lotuko baituzte hurraren gainean,  
lotua izanen da zeruetan ere; eta zer ere lacha-  
tuko baituzte hurraren gainean, lachatea izanen  
da zeruetan ere.

+ Kristo-Erragereen pibestian

(Jon Doni Joani, XVIII.)

Pilatusek galdegin zion Jesusi: Juduen erregea zare? Jesusak ihardetsi zion: Zure baitarik diozu hori, ala bertzek erramik nitaz? Pilatusek ihardetsi zion: Judua othe naiz ni? Zure herritarrek eta apez-nautiek eman zaituzte nere eskutarrat. Zer egin duzu? Jesusak errepostu: Nere erresuma ez da mundu huntakoa. Baldin eta mundu huntakoa balitz, nere menekoak guduka litazke segur, Juduen eskutarik nere begiratzeke. Baina nere erresuma ez da hemengo. Pilatusek galdegin zion berri: Beraz errege zarezu? Jesusak aldiz: Zeronek erran duzu, hala naiz. Hartarakotz sortu izan naiz ni eta hartatik et hori naiz mundu huntarat, egitari lekukotasun emaiteko. Ezen egiazen seme diren gaziek ene boza entzuten dute.

+ Herztaileko lehen igandean

(Jon Doni Joan, XIX.)

Jesusen Odol Sakratuaren phestari.

Jesusek, orpina hartu ondoren, erran zuen: Oro  
betheak dire. Eta burua behitaturik, eman  
zuen arken hatsa. Juduek beraz (larumbat bez-  
pera zelakotz), gorpikutzak gurutzean egon et-  
zitezentzat larumbatuekin (izen handia zen  
larumbat egun hura), Pilatus othoiztu zuten  
zangarrak hautaraz zistozten, eta khenaraz  
zelzan. Joan ziren beraz soldadoak, eta  
hautu ziturten lehenaren zangarrak, hai eta  
parekin gurutzefikaturia izan zen bertzearenak.  
Bainan Jesusen ganat heldu zirenean, ikusirik  
jadamik hila zela, et-ziozkaten zangarrak  
hautu. Bainan soldadotarik batek lautzag  
ideki zion sakelta, eta berehala jalgi zen  
odol eta ur. Eta ikusi duenak eman du  
leku-kotasun, eta egiazkoa da haren leku-  
kotasuna.

+ Jon Doni Petri ondoan hartua or den lehen igandean

Anta Saundu gurzien phestari.

Jon Doni Petri bezala 48 garren plaman.



+ Andre-Dena Maria abortukotik  
lehen igandean  
(San Mathiu, I.)

San Joakin Andre-Dena Mariaren  
aitaren phestan

Jesu-Kristo Dabiden seme, Abrahamen seme  
denaren etorkia dakharren liburua. Abrahama-  
mek semetzat izan zuen Izaak. Izaakak  
aldiz izan zuen Jakob. Jakobek aldiz izan  
zuen Juda eta haren anaiak. Judak aldiz  
Shamarren ganik izan zituen Pharez eta Zara.  
Pharezek aldiz izan zuen Ezron. Ezronak  
aldiz izan zuen Aram. Aramek aldiz izan  
zuen Aminadab. Aminadabek aldiz izan  
zuen Naaron. Naaronak aldiz izan zuen  
Zalmonek aldiz izan zuen Rahabon  
ganik Booz. Boozek aldiz Ruthen ganik izan  
zuen Obed. Obedek aldiz izan zuen Jese.  
Jesek aldiz izan zuen Dabid erregea. Dabid  
erregeak aldiz izan zuen Salomon. Urriaren  
emazte iratuaren ganik. Salomonak aldiz  
izan zuen Roboam. Roboamak aldiz izan zuen  
Abiaz. Abiazek aldiz izan zuen Aza. Azak  
aldiz izan zuen Josaphat. Josaphatek aldiz

79  
izan zuen Osiar. Osiarek aldir izan zuen Jo-  
than. Jothanek aldir izan zuen Akas.  
Akasek aldir izan zuen Ezekez. Ezekezek  
aldir izan zuen Manarez. Manarezek aldir  
izan zuen Tomon. Tomonek aldir izan zuen  
Josiaz. Josiarek aldir izan zituen Jehonias  
eta haren anaia Babilonarako desterru irian.  
Eta Babilonarako desterruaraz geroz Jehoniasak izan  
zuen Zalathiel. Zalathielek aldir izan zuen  
Zorobabel. Zorobabelek aldir izan zuen Abiud.  
Abiudek aldir izan zuen Ehariz. Eharinek  
aldir izan zuen Azar. Azorrek aldir izan  
zuen Zadok. Zadokak aldir izan zuen  
Ahim. Ahimek aldir izan zuen Eliud.  
Eliudek aldir izan zuen Eazar. Eazarrek  
aldir izan zuen Mathan. Mathanek aldir  
izan zuen Jakob. Jakobek aldir izan zuen  
Josep Mariaren senarra, hunen (Mariaren) ganik  
sortu baita Jesus, Kristo deitzen dena.

Andre-Dena Maria abortukoetik  
bigarren igandean

(San Luke, II.)

Mariaren Bihotz guziz gorlearen phestan.

Jesusi erran zion bere amak: Haurra, zertako egin daukuzu holakorik? Hona non zure aitak eta nik bihotz-mindekin bilhatzen zintugun. Eta ihardetsi zioten: Zertako bilhatzen minduzuen? Et-zinakiten-a ene bitak matu gauzetan behar naizela aurkita? Eta heh et-zuten aditu harek erran zioten solasa. Eta janta zen heiskin, eta ethorri Nazaretetat, eta heien eskupeko zen. Eta haren amak solas horiek guzjak begiratzen zituen bere Bihotzean.

+ Andre-Dena Mariaren sort-eguneari

Buruilaren 8<sup>an</sup>

Andre-Dena abortukoetik lehen igandean  
 bezala, ~~##~~ garren plaman.

+ Mariaren sort-egunetik ondoko  
igandean  
 (San Luke, I.)

Mariaren izen sailduaren jhestan.

Gabriel aingerua igorri zuen jinkoak Galilea-ko hiri Nazarete deitzen zen batetarat, birjina baten ganat: hau ezkondua zen Josep deitzen zen Daviden etchetikako gizon batekin, eta birjinaren izena zen Maria. Eta aingeruak haren ganat sarturik, erran zion: *Stgur, graziaz bethea; jauna da zurekin; benedikatua zare emazten artean.* Maria, aditzezarekin, asaldatu zuten haren bolask, eta gogoa zereabilan zer zaitoken agur hori. Eta aingeruak erran zion: *Ez iri, Maria, ezen begitarte kausitu duzu jinkoaren aintzinean. Huna non amatuko zaren sabelean, eta mundurat emanen duzu seme bat, eta izena emanen diozgu Jesus.* Hau handia izanen da, eta deituko da: *Oroz-Gainekoaren semea; eta jinko jaunak emanen dio David bere aitaren errege-alkia, eta Jakobon ethean erreginatoren du betiere, eta haren erregetasunak ez du izanen aka-*

bantzarik. Bada Mariak erran zion aingeru-  
 ari: Nola eginen da hori, gizonik ezagutzen  
 ez dutenaz geroz? Eta ihardetu zion aingeruak;  
 erranez: Ezpiritu Saindua jautsiko da zutarat,  
 eta Oroz-Gainekoaren indarrak bere itzalean  
 ezarriko zaitu. Eta horrengatik zu gamik  
 sortuko den Saindua deituko da Jinkoaren  
 semea. Eta hura non Elizabeth zure kusia  
 hura ere semea beharra den bere zahartzean,  
 eta hura seigarren hilabethea da agorra dei-  
 tzen dutenarentzat. Ez baita bada deus ezin  
 eginik Jinkoarentzat. Bada Mariak erran zuen:  
 Hona Jinkoaren neskatoa; egina izan bekit  
 zure erranaren arabera.

+ Andre-Dena Maria doloretakoaren  
phestan  
 (Jon Doni Joani, XIX.)

Chutek zagotzin Jesusen gurutze aldean  
 haren ama, eta haren amaren ahizpa  
 Maria Kleofasena, eta Maria Madalena.  
 Jesusok beraz, ikusirik ama, eta ondoan  
 dizipulu maite zuena, eraten dio bere

amari: Emaztea, horra zure semea. Gero  
erraten dio dizipuluari: Horra zure ama. Eta  
ordutik dizipulua Maria hartu zuen bere ganat.

+ Urruko lehen igandean  
(Arosorioko igandean.)

Mariaren bort-egunetik ondoko igandean bezala,  
81 garren plaman.

+ Urriko bigarren igandean  
(San Luke, II.)

Mariaren amatasunaren pbestan.

Gibelat joan zirenean - Maria eta Josef -, Jesus  
Haurra gelditu zen Jerusalem, eta haren  
burhasoak et-ziren ohartu. Ustetx- eta heien  
lagun zenbeitekin zen, egin zuten egun baten  
bidea, eta bilka zabilizan akaiden eta erza-  
gunen artean. Eta ez baitzuten kausitzen,  
itzuli ziren jerusalemrat haren bilka. Eta  
hiru egunen buruan kausitu zuten ten-  
ploan, irakasten erdian jarria, heien  
entzuten, eta heieri galde egiten hari. Eta  
entzuten zutenak oro harritsuak zagozzen

74  
learen zehurtziaz eta ihardesteri. Eta ikus-  
tearekin, miseti ziren. Eta erran zion bere  
amak: Haurra, zertako egin daukuzu ko-  
lakorik? Huna non zure aitak eta nik  
behotz-minekin bilhatzen zintugun. Eta ihar-  
detsi zioten: Zertako bilhatzen minduzuen?  
Et-zinakiten-a ene bitak manatu gauzetan  
behar naizela aurkitu? Eta hek et-zuten adita  
hasek erran solasa. Eta jausti zen heiekin,  
eta ethorri Nazareterat, eta heien eskupeko  
zen.

+ Urriko hirugarren egandean  
(San Luke, I.)

Mariaren garbitasunaren phestean.

Gabriel aingerue igorri zuen jinkoak Galileako  
hiri Nazarete deitzen zen batetarat, birjina  
baten ganat: hau ezkondua zen Josep deitzen  
zen Dalriden etchetikako gizon batekin, eta  
birjinaren izena zen Maria. Eta aingerueak,  
haren ganat sarturik, erran zion: Egue, gra-  
ziaz betha; Jauna da zurekin, benedik-  
tua zure emazten artean. Maria, aditzea-

rekin, asaldatu zuten haren solasek, eta  
 gogor zerabilan zer zaiten agur hori. Eta  
 aingeruak erran zion: Ez izi, Maria, ezen  
 begitarte hausitu duzu jinkoaren aintzine-  
 an. Hura non amatuko zaren sabelan,  
 eta mundurat emanen duzu seme bat, eta  
 izena emanen diozu Jesus. Hau handia  
 izanen da eta deituko da: Oroz-Gaineko-  
 ren semea, eta jinko-Jaunak emanen dio  
 David bere aitaren errege-alkia, eta Jakoben  
 etxean erreginatoren du betiere, eta haren  
 erregetasunak ez du izanen akabantzarik.  
 Bada Mariak erran zion aingeruari: Nola  
 egingen da hori, gizonik ezagutzen ez duta-  
 naraz geroz? Eta inardetu zion aingeruak, erra-  
 nez: Ezpiritu Saindua jaitziko da zutarat,  
 eta Oroz-Gainekoaren indarrak bere itzakan  
 ezarriko zaitu.

+ Omia - Saindu ondoko igandean  
 (San Matheu, XIX.)

Petrak erran zion Jesusi: Huma guk utzi bai-  
 titugu guziak, eta jirraiki bagatzarizkitu;




zer izanen da berez guretzat? Eta Jesusk  
erran zioten: Egiaz derratzuet, zuek emi jarrai-  
ki zatzaz hitadomak, jizteko egunean, giro-  
naren dena jarriko denean bere toriarako  
albian, zuek ere jarriko zarete hamabi al-  
kiren gainean, Izraelgo hamabi jende-aral-  
den jizateko. Eta norik ere utzi izanen bai-  
tute itheas, edo anaiaik, edo arretrak, edo  
aita, edo ama, edo emaztea, edo haurrak,  
edo hurrak, ene izenaren gatik, hark baten-  
tzat chun izanen du, eta betiereko bizitzearz  
jabetuko da.

+ Omia - Saindutiak bigarren igandean  
(San Luke, XIX.)

Elizen benedizionarioen eta kontsekrazioenaren  
ordowitzapeneko jehosten.

Jesus, Jerikon sarturik, hucian barna zean.  
Eta bizen han gizon bat Lukeo deitua; eta  
han zerga-biltzarren aintzindari zen, eta abera-  
toa. Eta Jesusen ikustea bilhatzen zuen, nor  
otxe zen, eta et-zioen jendearen gatik, zeren  
bere heinean itheas baitzen. Eta aintzinarat

laster egind, igan zen zikomora ondo baten  
 gainerat, haren ikusteko, zeren handik iragai-  
 tekoa baitzen. Eta Jesus heldu zenean toki  
 hartarat, goiti behaturik ikusi zuen, eta  
 erran zion: Zakeo, laster jaits zaitz, ezen  
 egun zure etxean behar dut egon. Eta  
 erredakan jaitsi zen, eta borietan hartu zuen  
 etxerat. Eta ikusteara fin, guziak erasiaka  
 hari ziren, ziotelarik gizon behatoros baten  
 ganat aldaratu zela. Zakeok abiz, aintzine-  
 rat etxoririk, erran zion jaunari: Oraitik  
 ene ontasunen erdia, jauna, ematen diotet jende  
 behareri, eta norbeit zerbeit makur egin  
 badiot, lauetan hainbertze bihurtzen diot.  
 Horen gainean Jesusok erran zuen: Egur  
 salbamendua sartu da etxe hontan, zeren  
 gizon hau ere Abrahamen ume baita. Ezen  
 gizonaren semea etxorria da galdua zenaren  
 bilha eta salbatzerat.



98  
Ebanjelio berezirik ez duten sailnduen  
meztago ebanjelioak.

Martur baten phestan

(San Luke, XIV.)

(Asta Sailndu edo apherpiku balin-bazen.)

+I

Jesusek erran zioten jenderi: Baldin norbeit heldu bada ene ganat, eta ez baditu hastiatzen bere aita, eta ama, eta emaztea, eta haurrak, eta anaiaak, eta arrebaak, bai eta ene bere bizia, ez daiteke izan ene dizipulu. Eta bere gurutzera garraiatzen ez duena, eta ene ondotik heldu ez dena, ez daiteke izan ene dizipulu. Ezen zuekarik nor, dorre bat egin nahi balin-badu, ez da lehenik jartzzen behar diren gastuen konduen ateratzeko, baduen ez akabatzehorik; heldurrez eta, zimendua ezarri ondoan, ezin akabatu izan badu, ikusten duten guziak trufatzen alia dakizkion, erramez: Gizon hau hasi baita obran, baina ezin akabatu baitu! Edo zoin errege, bertze errege baten kontra gerlan haritzozat joatera.

koan, ez da lehenik jartzen zegoan irabiltzeko, heia hamar mila gizonekin ateratzen ahal zaion hogoi milarekin heldu zaionari. Ez bada bada gai, hura oraino urrun delarik, mezulariak igorritik, bakea galdeginarazten dio. Hobea beraz zuztarik nitor, dituen guziosi ukho egiten ez badiotu, ez daiteke izan ene dizipulu.

+ II

(San Matheo, XVI.)

Jesusek orain zioten bere dizipuluari: Ahalbetek nahi badu ene ondoretik ethorri, ukho egin beza bere buruari, eta garrasia beza bere gurutzera, eta jarraik behit. Ezen norik ere nahiko baitu bere bizia begiratu, galduko du; eta norik ere galduko baitu bere bizia ene gatik, kausituko du. Abainan, zer balia baikioke gizonari mundu guztiaren irabaztea, baldin bere arimaren galzteko zorigaitza badu? Edo zer emanen du gizonak bere arimaren ordain? Ezen gizonaren semea ethortzekoa da bere titaren borian bere aingeruekin; eta orduan

bakotchari bihurturen dio bere egintzen ar-  
bera.

(*Abta Saindu edo apherz fiku ez bozen.*)

+ I

(*San Mathiu, x.*)

Jesusek erran zieten bere dizipuluei: Et-zazu-  
ela uste izan ethorria naizela bakearen  
ekhartzerat lurrerat, ez naiz ethorria bakearen  
bainan bai ezpataren ekhartzerat. Alabainen  
ethorria naiz berekterat gizona bere aitaren  
ganik, eta alaba bere amaren ganik, eta  
erreina bere amagin-arebaren ganik. Eta  
gizonak etsai izanen ditu bere etchehoak.  
Abta edo ama ni baino maiteago duena,  
ez da on enekilako; eta semea edo alaba  
ni baino maiteago duena, ez da on eneki-  
lako. Ene bere gurutzera hartzen ez duena,  
eta jarraituzen et-zaitana, ez da on ene-  
kilako. Bere bizia begiratzen duenak galduko  
du; eta bere bizia galtzen duenak ene  
gatik, kausituko du. Zuek bere ganat har-  
tzen zaituztenak, ni nau hartzen; eta ni

hartzen nauenak hartzen du ni igorri nau-  
ena. Profeta hartzen duenak profeta delakotz,  
izanen du profetaen saria; eta justua har-  
tzen duenak justua delakotz, izanen du  
justuaren saria. Eta norik ere ttikien  
hautarik bati edaterat emanen baitio ba-  
kharrik baso bat ur hotz ene diripulua  
delakotz, egiaz derratzenet, ez dela bere sariaz  
gabeta izanen.

+ II.

(San Mathin, x.)

Jesusek erran zioten bere diripulueri: Deus ez  
da estalirik, agertuko ez denik, eta gordesik,  
jakinen ez denik. Ihunbetan erraten dantzenue-  
tana, errazue egun argiz, eta beharizat en-  
tzuten duzuen, predika zazue etche gaine-  
tarik. Eta et-zaitertela beldur izan gorphutza  
hiltzen dutenez, arima aldir ez baiterakete  
hil. bainan hobeki beldur izan zaitertete bai  
arima bai gorphutza ifernurako gal detzag-  
ketenez. Ez dire - a bi etche - hori too batean  
saltzen? Eta hetarik bat ez da lusserrat ero-  
riko zuen Aotaren baia gabe. Bada zuen

buruko ilke guziak kondatuak dire. Et-zaitetzela beraz izi: kaintz etche-chorik baino gehiago balio duzue zuek. Beraz nosk ere aithortuko bainau gizonen aintzinean, nik ere hura aithorturen dut ene Abita zeruetan denaren aintzinean.

Martir zenbeiten betako prestant

+1

(San Luke, XXI.)

Jesusek erran zioten bere diripulueri: Entzunen duzuenean guduz eta buruzagien kontrako althatzegz mintzatzzen, et-zaitetzela izi; horiek behar dute lehenik gertatu, bainan ez da oraino berehala akabantza. Eta erraten zioten: Jekiko da jindaria jindaiaren kontra, eta erresuma erresumaren kontra. Eta tokika izanen dire lur ikhara handiak, eta izurriak, eta goseteak, eta zerutik izanen dire guzua izigarriak, eta ikusgarri handiak. Bainan horiek guziak baino lehen, eskuz betako zaitzkitzue, eta jizarrako zaitzkitzue, ermanez zingogotarat eta presondegiotarat, herrestatuz erre-

gen eta gobernadoreen aintzinerat, ene izenaren gatik. Bada horiek gertatuko zaizkitzue, mita lekuoktasun eman dezazuezagat. Ezarazue beraz zuen behotzetan, ez aintzinetik gogoan erabiltzea zer ihardetsiko duzuen. Ezen nik emanen dautzuet mihia eta zuku-tzia, zuen etai gurziek ezin ihardetsiko ez ihardetsiko baitoste. Bada etxerri emanen zaituztete burhasok, eta anaiak, eta ahaiak, eta adiekkideak; eta zuetarik zenbeit hiden dituzte. Eta gurziek hastiatuko zaituztete, ene izenaren gatik. Eta ilhe bat ez da zuen burutik galduko. Zuen pazientziar izanen zarete zuen arimen jabe.

## +II

(San Luke, vi.)

Jesus, mendetik jaitsi eta, gelditu zen toki zelhu batean, eta harekin haren diripuhu multzu bat bai eta jende hainitz eta hainitz Judea gurzitak, eta Jerusalemetik, eta Birreko eta Sidoneko itas-barzteretarik. Hauak etborriak ziren haren entzuterat, eta beren onitasunetarik sendatzenat. Eta izpiritu gachtuez toleatuak zirenak



sendatzen ziren. Eta jende guzja hura ukitu  
nahiz zakelan, zeren haren ganik ateratzen  
baitzen indar bat, guzjak sendatzen zituztena.  
Eta Jesusck, begiak bere dizipuluetarat altcha-  
turik, erran zuen: Tokatsu beharrek, zeren  
zuenen baita jinkoaren erresuma. Tokatsu orai  
gose zaretanak, zeren asko baitzarete. Toka-  
tsu orai migas egiten dituztenak, zeren eginen  
baituzue irri. Tokatsu izanen zarete gizonek  
hastiatuko zaituztenean, eta beren ganik bere-  
chiko, eta laidoztatuko, eta zuen izena gack-  
totzat arbiuistuko dutenean gizonaren semea-  
ren gatik. Borcaria zaituzte egun hartan, eta  
jaiz, zeren zuen baria nasaria baita zerruan.

+ III

(San Matheu, XXIV.)

Jesus Olibetako mendi gainean jarria zago-  
larik, hurbildu zitzaizkon dizipuluak ichitka,  
ziotelarik: Eraguru noiz izanen diren horiek,  
eta zer eragutaraziko dituen zure ethortzea  
eta munduaren akabantza. Eta Jesusck ihardeta  
zieten, oranez: Behatuzue nihorck engana.  
Zuen asko ethorriko direne izenean,

diotlarik: Ni naiz Kristo, eta frango enganatu-  
tuko dute. Adituako ere duzue gudu, eta gudu  
horo. Behartze asaldia, ezen horiek gertatu  
beharrak dire; bainan ez da oraino aka-  
bantza. Ezen jekiren da jendetzea jendetzea-  
ren kontra, eta erresuma erresumaren kontra,  
eta iranen dire izurriteak, eta goseteak, eta lur  
ikharak tohika. Bada horiek gurziak atse-  
gaben hastapenak dire. Orduan ezarriko  
zaituztete hersturetan, eta hilen zaituztete, eta  
jendetze gurziak hastiatuko ene izenaren gatik.  
Eta asko eroriko dire, eta elgar salduko dute,  
eta elgar hastiatuko. Eta jekiko dire asko  
gorurrezko profeta, eta frango enganaturen dute.  
Eta nola gairi <sup>da</sup> ~~da~~ ginen baitu gachtakorik,  
hoztuko da hainitzen karitatea. Bainan nor  
ere ihardokiren baitu akabantzaraino, hura sal-  
batua iranen da.

+IV.

(Harzko denboran.)

(Jondoni Joani, xv.)

Martin batentzat

Jesusk erran zioten bere diripulueri: Ni naiz

egiazko mahats-ondoan, eta ene Aita da mehat-  
 ti-zaina. Nitau fruiturik ekhartzen ez duten  
 adar guztiak khenduko ditu, eta fruitua dakhar-  
 reten guztiak mochtuko, fruitu gehiago ekhar  
 dezalentezat. Zuek jadanik garbi zarete, erran  
 dautzuetan solasaren gatik. Zagozte nitau, eta  
 ni zuetan. Nola adarrek ez baitezake fruiturik  
 ekhar bere baiturik, baina behar baitu egon  
 mahats-ondoan; zuek ere ez, non et-zareten  
 nitau egoten. Ni naiz mahats-ondoan, zuek  
 adarrek; nos baitago nitau, eta ni hastan,  
 hurek ekhartzen du fruitu hainitz; ezen ni  
 gabe ez dezakezue deus egin. Norbeit nitau  
 ez balin-badago, kanporat artirikin dute adar  
 bat bezala, eta ihartuko da, eta bolduko dute,  
 eta surat artirikin, eta orreko da. Nitau ego-  
 ten balin-lazarete, eta ene erranak zuetan  
 balin-badagotzi, nahi duzuen guzti galbe-  
 tuko duzue, eta eginen zaitzue.

+V

(Jon Doni Joani, xv.)

Zenbeit martirentzat

Jesusen eran zizuten bere dizipuluei: Ni naiz  
 mahats-ondoa, zuen adarrak; nos baitago  
 mitan, eta ni hastan, haren ekhartzen du  
 fruitu haimitz; ezen ni gabe ez dezakezue deus  
 egin. Norbeit mitan ez balinbadago, kanporat  
 artetikiren dute adar bat bezala, eta ihartuko  
 da, eta bilduko dute, eta surat artetikio, eta  
 erreko da. Mitan egoten bazarete, eta ene orra-  
 nak zuetan balin-badagozki, nahi duzuen  
 gurria galdetuko duzue, eta eginen zaitzue.  
 Hau da ene Aitareen ohorea, fruitu haimitz  
 ekhar dezazuen, eta izan zaitzuten ene dizi-  
 pulu. Aitak ni maitatu nauden bezala, nik  
 ere zuen maitatu zaitzartet. Zagozte ene amo-  
 dioan. Ene manamenduak begiratzen beditu-  
 tze, egonen zarete ene amodioan, nola nik  
 ere begiratzen baititut ene Aitareen mana-  
 menduak, eta haren amodioan bainago.  
 Hauk erran daukitzuet, ene bozkarioa zue-  
 tan izan dadientzat, eta zuen bozkarioa  
 izan dadientzat osoa.

Ante Saindu edo Apherziku zen Saindu  
baten jhestan.

+1

(San Mathiu, xxv.)

Jesusek bere diripulueri erran ziaten alegiazko  
ichtorio hau: Gizon batek, urrunerat alian  
zelarik, deitu zituen bere sehiak, eta eskue-  
tarat eman ziozkaten bere ontasunak. Eta  
bati eman ziozkan bostz talenta; bertze  
bati bia, bertze bati aldiz bat, bakotchari  
bere ahalaren arabera, eta abiatu zen beshala.  
Bada joan zen bostz talenta hartu zituena,  
lanean haritu zen heiekin, eta irabazi zituen  
bertze bostz. Halaber bia hartu zituena  
eke irabazi zituen bertze bia. Bat hartu zuena  
aldiz joan zen lurrean zilo baten egiterat,  
eta gorde zuen bere nauaren dirua. Bada  
denbora askoren buruan, etorri zen sehi  
heien nausia, eta bihurrarazi ziozkaten kon-  
duak. Eta burkildu zen bostz talenta hartu  
zituena, eta aintzinerat eman ziozkan bertze  
bostz, ziolarik: Nausia, bostz talenta eman  
dauzkidatzen, huna bertze bostz hetaz bostzalde

irabazi ditudanak. Thardetsi zion bere nau-  
siak: Emak-hor, sehi on eta leiala; gauza tti-  
kistan leial izan haizelakotz, handien buru  
ozarriko haut; sar hadi hire nausiaren gozoan.  
Hurbildu zen bi talente hartu zituena ere,  
eta erran zuen: Nausia, bi talente eman  
dauzkidatzu; kuma bestze bira, irabazi  
ditudanak. Thardetsi zion bere nauziak: Emak-  
hor, sehi on eta leiala; gauza ttikistan leial  
izan haizelakotz, handien buru ozarriko  
haut; sar hadi hire nausiaren gozoan.

+ II

Eufoniatik lehen igandean bezala 8 garren plaman

+ Elizako Dotor baten phestan  
(San Matheus, v.)

Jesusek erran zioten bere dizipulueri: Zuek  
zarete lurreko gatza. Baldin gatza gazatzen  
balin-bada, zerekin gazituko da? Dendutako  
ez da on gehiago, kanporat arteki eta jendeak  
zangopean erabiltzeko bairzik. Zuek zarete  
munduko argia. Ez daiteke gorde mendu  
gainean jarriz den kiria. Eta ez dute argia

pizten eta gaitzeru azpian ezartzen, baiman  
 bai gandelak ginean, etxean diren guziak  
 argi dartzat. Horrela argi beza zuen  
 argiak gizonen aintzinean, zuen egintza  
 onak ikusirik, laude dartzat zuen tosta  
 zeruetan dena. Et-zazuela uste izan ethorria  
 naizela Legearen edo profeten ezertatzerat.  
 ethorria naiz, ez ezertatzerat, baiman bethe-  
 tzerat. Ezen egiaz derratuzet, zoru-lurrak  
 iraganen dire i bat edo tikit bat Legetik  
 galduko den baimo behen, guziak bethe artio.  
 Beraz norik ere hautsiko baitu manamendu  
 chumenen horietarik bat, eta hala iraka-  
 tuko baitute gizoneri, hura osoki tikiak  
 deitua izanen da zeruetako erresuman; aldir  
 norik ere betheko baitute eta irakatuho,  
 hura handia deitua izanen da zeruetako  
 erresuman.

Ez tosta bairindu ez Aphozpiku et-zen  
gizon bairindu baten phestan

+ I

(Jan Luke, XII.)

Jesusk erran zisten bere diripulueri: Lotuak

izan bite zuék gorriak, eta argi piztuak zuen eskudetan. Eta zuék izan zaitzte nola nau-siaren beka dagotzin multirik, moiz itzuliho den eztaitarik; heldu denean, eta jotzen duenean, berehala idskitzeko. Dohatsu sehi hek, nautia heldu denean atzarriak kausitzen baditu. Egiaz dederatuzet, gorria lotuko duela, eta mokanean farraraziko dituela, eta ibiliko dela heien zerbitzatzén. Eta heldu bada bederatziatarik gauerdia artean, eta heldu bada gauerditik hirua artean, eta hala kausitzen baditu, dohatsu dire behi hek. Bada hau jakin zazue, baldin etcheho naukiak balaki zer tenorez ethortzeho den ohoina, segur atzarrisik lagokela, eta ez lezokela utz bere etchearen zilatzerat. Zuek ere zagozte prest, zeren utte ez duzuen tenorean ethorriko baira gizonaren semea.

+ II

[San Luke, XII.]

Jesusek erran zisten bere diripulueri: Et zaitela lota, artalde ttikittoa; ezen zuen otaren gogorako izan da zueri erresumaren ematea.



Sal zotrue ditutzuena, eta amoinetan eman.  
Egizkiltzue higitzen ez diren moltsak, zeruan  
bete irauenen duten ontasunak; han ez baita  
ohoririk hurbiltzen, eta biptak ez baitetu  
chakutzen. Ezen non ere baita zuen onta-  
suna, han izanen da zuen bihotza ere.

+ Abaden edo fraile-buruzagien  
phestan

Oma-Laindu ondoko igandean bezala,  
85 garren plaman

Birjina baten phestan

+ 5  
(Martur izan dadien, edo ez)

+ 1

(San Mathie, xxv.)

Jesusek erran zioten bere dizipulueri alegiazko  
ichtorio hau: Zeruetako erresuma izanen da  
hamar birjinen iduriko, hauek, beren lampak  
pizturik, atera baitziren jium esposaren eta  
andere esposaren biderat. Bada heietarik  
bortz baziren zoroak, eta bortz zuberak. Eta

bartz zoroek, lanpak hartu-eta, et-zuten oho-  
 rik hartu berekin. Zuhurrek aldiz lanpekin oliva  
 hartu zuten beren untxietan. Bada, nola jaun  
 espasak berantzen baitzuen, loaletu ziren  
 gurziak eta lokartu. Bada gauerditan oihu bat  
 egin zen: Hama jaun espasa heldu, atona  
 zakizkiote biderat. Orduan jehi ziren birjina  
 hek oro, eta aphaindu zituzten beren lanpak.  
 Eta zoroek erran zuten zuhurreri: Eguzue zuen  
 ohietik, gure lanpak hiltzen baitire. Zuhurrek  
 ihardetsi zuten, erranez: Beldurrez-eta ez dadin  
 izan zuen eta gure dina, hobe duzue sal-  
 tzaitalarat joatea, eta zuena erostea. Bada  
 erosterat zoatzilarik, ethorri zen jaun espasa,  
 eta prest zirenak sartu ziren harekin eptai-  
 tarat, eta heldi zen atea. Tokenean heldu  
 dire bertze birjinak ere, diotelarik: Jauna,  
 jauna, idlek iragurzu. Bainan harek ihar-  
 desten diote, erranez: Egiaz derratzuet, et-  
 zaituztet eragutzen. Zagozte beraz atzarririk,  
 ez baitakizue eguna, ez orena.

(San Mateu, XIII.)

Jesusek erran zisten bere dizipulueri alegiazko ishortio hau: Zeruetako erresumak iduri du dirutze bat landa batean gordea; hura atzematzen duen gizonek gortetzen du, eta lortzen badoa, eta erosten du landa hura. Zeruetako erresumak iduri du oraino gizon tratulari bat, perla on bisha dabilana. Eta kausitu duenean perla balios bat, badoa eta dituen gurziak saldurik, hura erosten du. Zeruetako erresumak iduri du oraino sare bat itsasorat artekia, eta arrain mota gurziatarik biltzen duena. Haur, bethe denean ateratzen dute, eta, itsas basterrean jarririk, berehala dituzte onak untxietarat, txarrak aldiz kanporat artikitzen. Hala izanen da munduaren akabantzan. Jhixen dire aingurak, eta gueptaginak berehala dituzte justuen artek, eta artetikiko suzko laborat: han izanen baita nigar eta hostz karraska. Komprentu dituzte horiek gurziak? Phardesten diote: Bai. Eraten diote: Abia hortaz, zeruetako erresumaz argitua den ishortio hau

iduri du etheko-jauri bat, bere diru-kutxatetik  
zahar eta berri ateratzen duena.

+ Martir, eta ez birjina, den emazte  
suinde baten phestan  
Birjinen bigarren ebanjelioa, 10<sup>h</sup> garren plaman

+ Ez martir, ez birjina ez den emazte  
suinde baten phestan  
Birjinen bigarren ebanjelioa, 10<sup>h</sup> garren plaman

Phesta berezi batzuetako ebanjelioak

+ Urthelberri

( San Luke, 11.)

Zortzi egun bethe ziren ondoren, haurrari  
zirkonvizionearen egiteko, eman zisten izena  
Jesus, aingeruak eman zion izena, amaren  
sabelean sortu baino lehen.

+ Purifikazioan

(San Luke, II.)

Ganderaihur

Bete zirenean Mariarentzat garbitzeko egunak,  
 Moisen legearen arabera, ereman zuten Jesus  
 Jerusalemerat, Jaunari eskaintzeko, Jaunaren le-  
 gean iduribatua den bezala: denaren sabela  
 lehenik idurikisen duten multziki guztiak jau-  
 nari kontsekratuak izanen direla; eta sakri-  
 fiziakotzat emateko, Jaunaren legean erroana ~~den~~  
 denaren arabera, osttoila pare bat, edo bi  
 etche-usa ume. Bada orduan bazeu Jeru-  
 salemen gizon bat, Zimeon deitua, eta gizon  
 hura justua eta jinkoaren beldurra zuena;  
 Izraelen kontsolamendua igurikatzen zuen, eta  
Izpiritu Saindua haren baitan zen. Eta eza-  
 gutarazi zion Izpiritu Saindua et-zuela he-  
 rria ikusiko, non et-zuen lehenik ikuster  
 Jaunaren Kristo. Eta Izpirituak ekharri zuen  
 temploratu. Eta nola Jesus Flaura baitza-  
 karreten bere burhasoek, harentzat Legearen  
 arabera egiten zenaren egiteko, Zimeonek

partu zuen bere besotarat, eta jinkoa benedikatu zuen eta erran: Orain, jauna, utz-azu zure zerbitzaria, zure hitzaren arabera, bak-an joateat. Ezen ene begiek ikusi dute zure ganikako Salbatzailea, ezarri duzuna populu guzuen arpegi aintzinean, jendetzek ikusteko argi, eta ~~zue~~ Israel zure populuaren ohore.

+ San Josepen phestan  
(San Matheu, 1.)

Nola Maria Jesusen ama Josepekin ezkondua baitzen, elgarretaratu baino lehen, aurkitu zen haur beharretan Irpiritu Sainduaren ganik. Bada Josef haren senharrek, prestatu baitzen eta ez baitzuen nahi hura desohoratu, nahi izan zuen ichilka igorri. Baina gogoeta horiek zerabitzalarik, hura non jaunaren aingorua agertu zitzaion le zagararik, eta erran zion: Josef, Dalriden semea, et-zaitela lota Maria zure emaztea zure ganat hartzeko; ezen haren baitan bertua dena Irpiritu Sainduaren ganikakoa da. Bada

mundurat emanen du seme bat, eta izena  
emanen diegu Jesus: ezen harek bere populua  
salbatuko du bere bekhatuetarik.

+ Sandre-Dena Maria Martxoan

Mariaen izen sainduaren phestan bezala  
81 garren plaman

+ Jon Domi Joani-Baticharren phestan  
(San Luke, 1.)

Elizabethi bethe zitzaion haur egiteko denbora,  
eta egin zuen seme bat. Eta haurgoek eta  
ahaidetok aditu zuen nola jaunak bere  
urrikalmendua haridizki irakutsi zuen  
haur buruz, eta bozkariatu ziren harekin.  
Eta zortzigarren egunean etorri ziren  
haurrari zirkonfizionearen egiterat, eta deitu  
zuten bere aitaren izenez Zakarias. Eta inardetu  
zioten haren amak, ziolarik: Batore, bainan  
deituko da joanes. Eta orran zioten: Bainan  
nihar ez da zure ahaidegoan izen hortaz  
deitzen denik. Batari aldirik keinu egiten

zieten, nola nabizuten haurra deitzea. Eta  
 taulatto bat galdeturik, idribatu zituen hitz  
 hauek: Joanes da horren izena. Eta harritu  
 ziren oro. Bada ordu berean eteki zitzaion  
 ahoa eta libratu mikia, eta mintzo zen jin-  
 koa benedikatur. Eta beklurrak jo zituen heien  
 haurgo gurziak, eta Judeako mendia gurietan  
 barraiatu ziren gauza horiek oro. Eta aditu  
 zituzten gurziak ezarri zituzten boren behotzean,  
 ziotelarik: Zer aste duzu izamen den haur hori?  
 Ezen jinkoaren eskua harekin zen. Eta Zaka-  
 riak haren aita belte zuen Espiritu Santuak,  
 eta profetia egin zuen, ziotelarik: Benedikatu  
 Israelgo jinko jauna, heldu izan zaitelakotz  
 bere populuari, eta duelakotz erosi.

### + Haurtoz

(San Matheu, vi.)

Jesusek erran zieten bere dirzipulueri: Barur  
 egiten duzuenean, et-zaitetzela jar, alegia  
 onak bezala, ihundurik; ezen desegiten di-  
 tuzte boren begitarsteak, jenderi irakusteko  
 barur direla. Eziaz derratzuet, berekin dutela



boren saria. Zauk aldez, barur egiten diru-  
 nean, gantzu zaru zure burua, eta zure begitea  
 garbi; ez dezatetzat gizonak ihus barur  
 zurela, bainan bai zure aita, toki goxetan  
 denak; eta zure aita toki goxetan ipusten  
 duenak, bihurturen daukozu. Et-zazuela aber-  
 rastasunik multzuan bil lurrean, heimen  
 biptiek eta herdoiak jiten baitituzte, eta  
 okoinak lurpetik ateratzen eta ebasten. Bainan  
 zuen aberastasunik multzuan ezar-  
 atzue zerruan, han ez baitituzte ez biptiek ez herdoi-  
 lak jiten, ez eta ere okoinak lurpetik ate-  
 ratzen, ez ebasten.

+ Ortzegun Sainduz

Jon Doni Joani, XIII.)

Phariko phesta egun aintzinean, baitzakien  
 Jesussek orena heldua zuela mundu huntarik  
 Aitaren ganat joateko, nola maite izan  
 baitzituen munduan ziren bereak, akaban-  
 tzaraino maitea zituen. Eta apfel ondwan,  
 nola oedukotz debruak haren saltzea biko-

bzerat eman baitzion Judas Simon Izharis-  
 terraren semeari, baitzakun bitak oro esku-  
 etarat emanak ziotzala, eta jinkoaren ganak  
 atortu zela eta jinkoaren ganat zozala, jekitzin  
 da makinetik, eta khentzen dita bere soinu-  
 koak, eta oihal bat harturik, lotzen du  
 gerrian. Gero ichurtzen du ura untzi  
 batetatat, eta hasten da dizipulueri zangoen  
 garbitzen, eta gerrian duen oihalez sukatzin.  
 Aheldu da berez Simon Petriren ganat. Eta  
 erraten dio Petrik: Jauna, zuk emi zangoak  
 garbi! Jesusek inardesten dio, eta erraten: Ni  
 zer hari naizen, ez dakizu orai, bainan jahi-  
 nen duzu gero. Petrik erraten dio: Egun eta  
 sekulan ez dautazu zangoak garbituko. Har-  
 desten dio Jesusek: Ez bazaitut garbitzen, ez  
 duzu enekin egitehorik izanen. Erraten dio  
 Simon Petrik: Jauna, ez zangoak bakarrik,  
 bainan eskuak ere, eta burua. Erraten dio  
 Jesusek: Chakutua denek ez du zangoen  
 garbitzea baijik eskas, bertzenaz garbi da  
 gurria. Zuk ere garbi zarete, bainan ez  
 gurziak. Bazakien alabainan zoin zen nura  
 salduko zuena; horrengatik erran zuen:

Et-zarete garbi guzuzak. Beraz heien zangoak garbitu eta sincheak hartu ondoren, berriaz mahaian jarri zenean, orain zioten: Dadakizue-a zer egin dautzuetan? Zuek deitzen nauzue Mausia eta Jauna; eta ongi diozue, ezen hala naiz. Beraz nik, Mausiak eta Jaunak, garbitu baditut zuen zangoak, zuek ere behar diozkatue batak bertzeari zangoak garbitu. Ezen etxenplua eman dautzuet, nik zueri egin dautzuetan bezala, zuek ere hala egin dezazuezagat.

+ Erkontzako mezako ebanjelioa

(San Matheu, XIX.)

Farisauak hurbildu zitzaizkon Jesusi hutean atzemateko, eta erran zioten: Hirizu zaiu-a gizonari bere emaztearen uztea zer-nahi kasu izama-gatik? Inardetxi zioten eta erran: Ez duzue-a irakurten gizona hastetik egin zuenak, gizonki eta emazteki egin zituela? eta erran ziotela: Horrengatik gizonak utriko ditu aita eta ama, eta eratchikiren zaiu bere emazteari, eta izanen dire bira heragi batean.

Hargatik ez dire gehiago bera, bainan bai  
haragi bat. Beraz jinkoak batoratu duena,  
gizonak ez beza berech.

## Hilen mezetako ebanjelioak

+ I

Hilen phestan, hazilaren 2 an.

(Jon Domi Joari, v.)

Josusek erran zioten Judu multzu handi bati:  
Linez eta egiaz derratquet, heldu dela orena, eta  
orai da, non hiech entzumen baitute Jinkoa-  
ren Semearen boza; eta entzumen dutenak  
biziko dire. Ezen nola baita ibitak bizia  
bere baitan, hala Semeari ere eman dio  
biziazen izatea bere baitan. Eta eman dio  
fujamenduaizen egiteko ahala, gizonaren  
Semea delakotz. Et-zaitzela hortaz harri;  
ezen heldu da orena, non hobetan diren  
guriek entzumen baitute Jinkoaren Semearen  
boza. Eta ilhizen dice: ongia egin dutenak,

bitzoko pizterat; gaizkia egin dutenak abitz,  
damnazionuzko pizterat.

+ II

Hilen ehortz mezan

(Jon Doni Joani, XI.)

Marthek erran zion Jesusi: Jauna, homen izan  
berixe, ene anaia et-zen hilen; bainan orai  
ere badakit zer-nahi galde diezozun jinkoari,  
jinkoak emanen dautzula. Erraten dio Jesusck: Piz-  
turen da zure anaia. Erraten dio Marthak: Ba-  
dakit pizturen dela azken eguneko piztean.  
Erraten dio Jesusck: Ni naiz piztea eta bizia; ene  
baitan sinhesten duena, hila baldiz ere, biziko  
da; eta nikor bizi denik eta ni baitan sin-  
heste duenik, ez da hilen behinere. Sin-  
hesten duzue hori? Ihardetsi zion: Bai, Jauna,  
sinhesten dut zu zarela Kristo jinko biziaren  
 semea, mundu huntuat ethorri zarene.

Hilén ardurako merzetan

(Jon Domi Joani, VI.)

Jesusek erran zioten judu multzu batzueri: Ibi  
 naiz ogi bizia, zereutek jaitzi naizena. Abobeitek  
 jaten badu ogi huntarik, biziko da betere,  
 eta nik emanen dutan ogia ene haragia mun-  
 duarentzat bizientzat. Bada Juduak aharran  
 hari ziren elgarren artean, ziotelarik: Horrek  
 nola eman diezakegu bere haragia jaterat?  
 Erran zioten beraz Jesusek: Ezinez eta egiaz  
 derratzuet: Non ez duguen jaten gizonaren  
 semearen haragia, eta edaten haren odola,  
 ez dugue izanen bizia zuen baitan. Ene ha-  
 ragia jaten eta ene odola edaten duenak, badu  
 betiereko bizia; eta nik hura piztuko dut az-  
 ken egunean.

116

Jesu-Kristo gure jaunaren  
pasioa

(Erramuz meza gurziatan irakurtzen dena)  
(San Mathin, XXVI-XXVII.)

Jesusek erran zioten bere dirizipulueri: Badakizue bi egunen buruan eginen dela Phazkoa, eta gizonaren semea salduko dute gurutzefikatze. Orduan bildu ziren aphez aintzindarriak eta populuko zaharrak Kaifas deitzen zen etche-sartzerat; eta elgar aditu zuten Jesusen jabetzeke amarruz, eta haren hilarazteko. Bainan zioten: Ez phesta egunean, beldurrez eta buila egin zadien populuan. Bada nola Jesus Bethaniam baitzen Simon lepradunaren etchean, hurbildu zitzaion emazte bat alabaztrazko untri bat eskuan, gantzuzailu balios batez bethea, eta ichuri zion buruaren gainerat nafainean zelarik. Bada, ikusi zutenean, gaizki hartu zioten dirizipuluek, ziotelarik: Zertako galtze? Ezen hori sal zaitheken gasatte eta pobreri eman. Jesusek aldir, baitzakien zer zarasaten, erran zioten: Zergatik gaizkitzen duzue emazte hau? Ezen eni egin daukana egintza ona da. Alabaunak pobreak badituzque beti zuekin, ni aldir ez naizue beti izanen. Honek gantzuz

gailua ichuri duenean ene gorpuztaren gini-  
 nerat, egin du ene ehorzteari buruz. Egiaz derra-  
 tzuet, non-nahi predika dadin Ebanjelio hau  
 mundu guzian, hunek egin duena ere aipha-  
 tuko da hunen orhoitzapenetan. Orduan hama-  
 biatarik bat, Judas Izkaristarra deitua zena, joan  
 zen apez aintzindarietarat, eta erran zioten: Zer  
 nahi dantazue eman, eta nik eskuetaratuko  
 dautzuet. Eta hek hitzeman ziozkaten begai-  
 ta hamar zilhar. Eta ordutik arte onaren bita  
 zabilan, Jesusen heien eskuetarat emateko.  
 Bada altzagarririk gabetako lehentziko  
 egunean, dizipuluak ethorri zitzaizkon Jesusi,  
 ziotelarik: Non nahi duzu behar dena presta  
 dizazugun Pharisaoren jateko? Eta Jesusk  
 ihardetsi zioten: Loazte hirirat hulakoaren  
 ganat, eta errozue: Kutsiak dio: Ene denbora  
 hurbildua da, zuse etxean egiten dut Pharisea  
 ene dizipuluekin. Eta dizipuluek egin zuten  
 Jesusk manatu bezala, eta prestatu zuten  
 Pharisea. Bada, arreata jin zenean, mahaine-  
 an eman zen bere hamabi dizipuluekin. Eta  
~~dizipuluek~~ egin hark jaten hari zirelarik, erran  
 zioten: Egiaz derratuzet, zuetarik batek alduko



118  
nauela. Eta atsegabe handitan, hasi ziren nor  
bere aldetik galdetza: Ni othe naiz, jauna? Eta  
Jesusak ihardetsi zuen, ziolarik: Enekin jatekoan  
eskua bustitzen duenak, harek nau salduko.  
Bada, bai, gizonaren semea, hartaz iskribatur  
izan den bezala; bainan zorigaitz gizonaren  
semea salduko duen gizonari; hobe zen gizon  
harentzat, ez balitz sortu. Eta ihardetsi zion  
judas hurra saldu zuenak, ziolarik: Ni othe naiz,  
Jauna? Ihardetsi zion: Errom duzu. Bada  
lek aforitan hari zirelarik Jesusak hartu zuen  
ogia, eta hauti eta benedikatu; eta eman  
zisten bere diripulueri, ziolarik: Hara zaque eta  
jan, hau da ene gorpuzte. Eta edateko un-  
tzia harturik, eskoerak behurtu zituen, eta eman  
zisten, ziolarik: Edan-azue huntarik guziek. Ezar  
hau da ene odola, Testament berrikoa, hainitzeg-  
tzat ichuria izanen dena bekkatuen barkhamen-  
dutan. Bada erraten dautzuet: Ez dut gehiago  
mahatzenen fruitu huntarik edanen, ene bita-  
ren erresuman zuekin berri bat edanen dutan  
eguneraino. Eta eskoerak emanik, itxi ziren  
Albetako mendirat. Oeduan errean zisten Jesu-  
sek: Guziek mahur-bide izanen duzue ene gatik

gau huntan. Ezen iskeribatua da: Joko dute ar-  
 tzuina, eta barraiatuko dire artaldeko ardiak.  
 Baina piztuko naizenean, aintzinduko na-  
 tzaitzue Galilarrat. Bada Petrik ihardetsi zion,  
 zidarik: Bertze guziek makur-bide behar badute  
 ere zure gatik, nik ez dute sekulan hala izanen.  
 Jesusk erran zion: Eziaiz derratzat, gau huntan,  
 oilarrak jo baino lehen, hiruetan ukhatuko  
 nauzula. Ihardetsi zion Petrik: Behar banu ere  
 zurekin hil, et-zaitut ukhatuko. Gaurza beza  
 erran zuten bertze diripulu guziek ere. Orduan  
 Jesus heikin ethorri zen Jertsemari deitua zen  
 bordalde batetarat, eta erran zioten bere diripulu-  
 lueri: jar zaitzete hemen, ni haraket noan  
 artean othoitz egiterat. Eta harturik Petri eta  
 Lebederen bi semeak, hasi zen barnez ihun-  
 tzen eta lasten. Orduan erran zioten heieri:  
 Ene arima lastua da hiltzeko heinera,  
 igurika zozue hemen, eta zagozte enekin atzar-  
 ririk. Eta aintzinachago joanik, erortzen da  
 begitartez lurrerat, eta othoitz egiten du, dularik.  
 Ene Abita, ahal balin-bada, urrun bechi ni  
 ganik kalitza lau: bizkitartean, ez nik nahi  
 bezala, baina zuk nahi bezala. Eta heldu

da bere dizipuluetarat, eta hausitzen diti lo, eta  
 erraten dio Petri: Zer bada, et-zarete egon  
 ahal izan oren bat enekin atzarririk? Lagote  
 atzarririk, eta othoitz egizue, tentazionean ez  
 sartzeko: ezen gogoia duhar da, bainan haragia  
 indar-gabe. Berritz bigarren aldikotz joan zen, eta  
 othoitz egin zuen, ziolarik: Ene bita, kalitza  
 hau ez baditake ene ganik urrunt nik edan  
 gabe, egin bedi zure nahia. Eta ethorri zen  
 berritz, eta hausitu zituen lo, ezen begiak pi-  
 sutuak zituaten. Eta hek utziarik berritz ore  
 joan, eta othoitz egin zuen hirugarren aldikotz,  
 hitz berak erranez. Orduan heldu da dizipulu-  
 etarat, eta erraten diote: Lo egizue orai, eta pausa  
 zaitzte: huna tenorea hurbildua, eta gizona-  
 ren semea emana izanen da gachtaginena es-  
 kuetarat. Jeki zaitzte, goazen; huna non hurbildua den ni etsaeri emanen nauena. Oraino  
 muintzo zelarik, huna non judas hamabietarik  
 bat ethortzen den, eta harekin jende multza handi  
 bat, erzpatekin eta makilekin, apherz aurtzinda-  
 rik eta populuko zaharrek igoririk. Bada hura  
 saldu zuenak, zertarik ezagut eman zioten,  
 erranez: Nori ore emanen baitist musu, hura

bera da; har zarue. Eta berehala Jesusen ganat hurbildurik, erran zion: Abgur, Naubia; eta eman zion musu. Eta Jesusék erran zion: Etolichki-dea, zentarat elhorri zare? Orduan hurbildu ziren, eta eskuak ezarri zituzten Jesusen gainean, eta hartu zuten. Eta huna non Jesusekin zirenetarik batek, eskua hedaturik, ateratu zuen bere espata, eta apher-nausiarren schi bat jorik, pikatu zion beharria. Orduan Jesusék erraten dio: Bihur zarue zure espata bere tokirat; zren espata hartuko duten gurziak erpatatik joanen dire. Hala uste duzue ez degahetala othritz ene Aita, berehala igorriko bailaurret hamabi aingeru aralde baino gehiago? Hala beraz betheko dire Eskribuak, hola gertatu beharra dela baitote? Orduan Jesusék erran zioten jende heiri: Ohoir baten ganat bezala itki zarete erpatekin eta nahilekin ene hartzerat; egun oroz zuen artean jarria irakasten hari mintzen templon eta ez naizue hartu. Bainan hau gurzia egin izan da, profetek iskribatuak bethe zitezentzat. Orduan diripulu gurziak, hura utzirik; ihesi joan ziren. Bada Jesus hartu zuten, eta eraman Kaifas apher-

nauziaren etcherat, non bilduak baitziren is-  
 kribauak eta zaharrak. Petri aldiz urrundik  
 jarraiki zytzaion aphez-nauziaren etche-sar-  
 tzeraino. Eta barnerat sarturik, behikin jarri  
 zen, gaur zertarako zen ikusteko. Bada aphez-  
~~nauziak~~ eta aintzindariak eta biltzar guztiak  
 gezurrezko lekukotasun bat bilhatzen zuten jau-  
 sen kontea, hunen halarazteko. Eta et-zuten  
 atzeman, nafiz asko lekuko gezurti agertu ziren.  
 Atzemenan elhorri ziren bi lekuko gezurti, eta  
 erran zuten: Honek erran du: Jinkoaren ten-  
 ploa ura dezaket, eta hiru egunen buruko  
 berretz chutik ezar. Eta jekirik, aphez-nauziak  
 erran zion: Deus ez duzu ihardesten lekuko hurek  
 zure kontra diotinari? Bainan Jesus ichilik  
 zagon. Eta aphez-nauziak erran zion: Jinko  
 biziaz errekeritzen zaitut, erragutzu heia Kristo  
 jinkoaren semea zaren. Jesusek ihardesten dio:  
 Erran duzu, hargatik eraten dautzuet egun batez  
 ikusiko duzuela gizonaren semea Jinko guziz  
 bolheretsuaren eskuinean jarria, eta zeruko hedoen  
 gainean heldu. Orduan aphez-nauziak urratu  
 zituen bere saxeokoak, ziolarik: Burhoa egin du;  
 zertako behar dugu gehiago lekukorik! Hume

non aditu dirauen burhoa. Zer zaitzue? Eta  
 bek ihardetsi zuten: Moresi du hitzea. Orduan  
 thu egin zioten begitarerat, eta ukhamilka  
 jo zuten; bertze batzuek berriaz zafalakoak eman  
 zizkaten begitaratean, ziotelarik: Pentsa izaguk,  
 Knisto, nor den hi jo hauena. Bada Petri ethe-  
 sartzean jarria zagon kanpoko aldean, eta  
 hurbildu zitzaion neskato bat, ziotelarik: Ibi ere  
 Jesus Galileekoarekin hitzzen. Bainan harek  
 ukhatu zuen gurein aintzinean, ziotelarik:  
 Ez dakinat zer derasan. Eta nola atheratik atera-  
 tzen baitzen, bertze neskato batek ikusi zuen,  
 eta orran zioten han zireneri: Ibaue ere Jesus Naza-  
 retekoarekin zen. Eta berriaz ukhatu zuen, zin  
 eginez: Ez dutala ezagutzen gizon hori. Eta apher  
 baten buruan, hurbildu ziren han zagozinaak, eta  
 orran zioten Petri: Segurahi hi ere horietarik huz,  
 ezgu hise mintzairak berak salkatzen hau. Orduan  
 hasi zen arnegutia eta zintka, et-zuela ezagutzen  
 gizon hura. Eta orduan berean jo zuen oilarrak.  
 Eta orhoitu zen Petri Jesussek orran zion hitzaz:  
 Oilarrak jo baino lehen, hiruetan ukhatuko  
 naizue. Eta kanpsat ateraturik, nigaz egin zuen  
 garraschi. Bada argitu zuenean, apherz aintzindari

gurziek eta populuko zeharrek biltzarra egin zuten  
 Jesusen kontra, huren hilarazteko. Eta lotua  
 ereman zuten, eta Pontzio Pilatus gobernado-  
 rearen eskutian ezarri. Orduan Judas hura  
 saldu zuenak, ihusirik harenak egin zuela, ueri-  
 kiak eremanik, gibelat ekharri ziozkaten hogoi-  
 ta hamar zilharrek apez aintzindarieri eta zafar-  
 reri, ziodarik: Bekhata egin dut, hoben-gabeke-  
 odolala salduz. Eta hek ihardetsi zioten: Gusi zer  
 zaku? Ihus-ak heronek. Eta, dirua templean  
 artirik, gibelat itzuli zen, eta joan zen eta  
 bere burua urkhatu zuen. Bada apez ain-  
 tzindariek, dirua bildu eta, orran zuten: Ez da  
 haize hau templeko diru-kutchan ezartzea, odolaren  
 saria delakotz. Eta elgarrekin egon ondoran,  
 diru harekin erosi zuten bachera-egile baten lan-  
 da, arrotzen ehorzteko. Florrengatik landa hura  
 egungo eguneraino deitua izan da Flaceldama,  
 orran nahi da: odol-landa. Orduan bethe zen  
 Jeremias profetak orran zuena, zioenean: Eta  
 hartu dituzte hogoi-ta hamar zilhar, horren-  
 bertzetan saltzeko egina baitzen Izraelgo umen-  
 ganik erosi dutena. Eta hek eman dituzte  
 bachera-egile baten landan truk, jaunak

eni manatu bezala. Bada Jesus agertu zen go-  
bernadorearen aintzinerat, eta gobernadoreak galdel-  
 hau egin zion: Juduen errege zare zu? Jesusk  
 ihardetsi zion: Ezk diozu. Eta nola hobekidun  
 zela baitzieten apher aintzindariak eta zaharrek  
 deus et-zuen ihardetsi. Orduan Pilatusk eraten  
 dio: Ez duzu entzuten zenbat lekukotasun  
 darasaten zure kontra? Eta et-zion ihardetsi  
 haren hitz bakhar bati, hainitz harritzen  
 baitzen gobernadorea. Bada phesta-buru egu-  
 nean, gobernadoreak utaiar populuari libratzen  
 zion preso zen norbeit, nahizutena. Eta ordu-  
 an barzuen preso gachtagin famatu bat, dei-  
 tzen zena Barrabas. Beraz han bilduak zireneri  
 Pilatusk eran zioten: Ibr nahi duzue libra  
 dezazuedan, Barrabas, ala Jesus, Kristo deitua  
 dena? Barakien alabainan hau bekharitz eman  
 ziotela eskuetarat. Bada Pilatus juje-alkian  
 jarria zagolarik, bere emazteak igorri zion era-  
 terat: Deus ez bedi izan zure eta justu horren  
 artean; ezen gaur hainitz jasana naitz ame-  
 tsetan horren gatik. Apher aintzindariak eta  
 zaharrek aldiz populua bildu zuten Barrabasen  
 galdetzerat, eta Jesusen galtzerat. Beraz gober-



nadorea berotz mintzatu zitzaizoten, ziotlarik:  
 Bietarik zoin nahi duzue libre dezazuedan? Eta  
 ihardetxi zuten: Barrabas. Pilatusk erraten diote:  
 Zer eginen dut beraz Jesus, Kristo deitua denaz? Gu-  
 zuek ihardesten dute: Gurutzefika bedi. Goberna-  
 doreak erraten diote: Baina zer gaizki egin  
 du? Baina hek gehiago oihu egiten zioten, zio-  
 telarik: Gurutzefika bedi. Instearekin beraz  
 deus et-zuela irabazten, baina buila han-  
 ditzen hari zela, Pilatusk, ura harturik, esku-  
 ak garbitu zituen popularean aintzinean, zio-  
 larik: Ni garbi naiz justu hunen odolotek;  
 zuek ikus-arze. Eta populak gurziak ihardetxi  
 zuen, erranez: Horren odola gure gain, eta  
 gure umen gain. Orduan libratu zioten Barra-  
 bas, Jesus aldiz azotarazirik eskuetat eman  
 gurutzefikatzeke. Orduan gobernadorearen sol-  
 dadek, Jesus oremarik tribunaleko kanpoko-  
 alderat, haren ganat bildu zuten kohorta<sup>1</sup> gurzia.  
 Eta biluzirik, kapa gorri bat eman zioten pinerat,  
 eta koro bat bihurturik elhorriz, ezarri zioten  
 buruan, eta esku eskuinean kanabera bat.  
 Eta belharna gurtuz haren aintzinean, trufatzen  
 zuten, ziotelarik: Agur Juduen erregea. Eta  
<sup>1</sup> Kohorta: soldado andana bat

gainerat thu eginez, hartzen zioten kamabera,  
 eta burua jotzen. Eta trufatu zuten ondoan, kapa  
 khendu eta, jauntzi zuten bere spinekoaz, eta ere-  
 man zuten gurutzefikatzeko. Bada, ilkitzen zirelarik,  
 kausitu zuten Tireneko gizon bat, Timon deitua;  
 hau botxchatu zuten Jesusen gurutzearen erematerat.  
 Eta ethorri ziren Golgotha deitua den tokirat, hori  
 baita Kalbarioko tokia. Eta edaterat eman zioten  
 arnoa edori kirets bat naharirik. Eta destatu  
 ondoan, et-zuen edan nahi izan. Bada gurutzefi-  
 katu ondoan haren spinekoak partitu zituzten,  
 hortean emanaz; bethe zadientzat Profetak  
 erran zuena, zisencan: Beren artean partitu di-  
 tuzte ene spinekoak, eta ene spin-gainekoa  
 hortean eman dute. Eta jissirik, haren zaiant  
 zagotzin. Eta haren buruaren gaineko aldean  
 iskririkuz ezarri zuten haren hobena: Hau da  
Jesus, Juduen erregea. Orduan gurutzefikatu zi-  
 tuzten harekin bi ohin, bat eskuinetarik eta  
 bertzea ezkerretarik. Eta iragaiten zirenak burhoka  
 hari zitzaizkon, burua dardaratur, eta erranez:  
 Hea! Jinkoaren tenploa urratzen dukana, eta  
 hiru egunez berritz chutik ezartzen, salba-zak  
 hire burua; jinkoaren semea balin-lahair, jaits

hadi gurutzetik. Hala ber aphez aintzindariek ere  
 trapazen zuten iskribacekin eta zoharrekin, zio-  
 telarik: Bertzeak salbatu ditu, bere burua ez dezake  
 salba; Izraelgo errege balin-bada, jaits bedi  
 orai gurutzetik, eta sinhesten dugu horren baitan.  
 Jinkoaren gainean fida da; liba beza orai, maite  
 balin-badu. ezen erran du: Jinkoaren semea naiz;  
 Hala hala gaizkika hari zitzaizkon harekin  
 gurutzefikatuak izan ziren ohoiak ere. Bada  
 seigarren orenetik bederatzigarrenearaino ilhunik  
 hartu zuten lur gurzia. Eta bederatzigarren orenko  
 heinean, Jesusek harkarki oihu egin zuen, ziolarik:  
Eli, Eli, lamma sabaktani, erran nahi baita:  
 Ene jinkoa, ene jinkoa, zergatik utzi naiz? Bada  
 han zagozinetarik zenbaitak, hori aditzearekin,  
 erraten zuten: Elias deitzen du horrek. Eta bere-  
 hala helarik batek, lasterka joanik, hartu zuen  
 esponga bat, orpinaz bethe, eta kanabera baten  
 puntan ezarririk, edateat eman zion. Bertzek  
 aldiz erraten zuten: Bego, dugun ikus Elias heldu  
 zion- ez libratzerat. Baina Jesusek, berriaz ere  
 oihu handi bat eginik, artiki zuen hitza.<sup>1</sup> Eta  
 orduan berean temploko bekoa urratu zen bi alde-  
 tarat gainetik behororaino, eta lurra isharatu zen,  
 1 Hemen, belhauniko emanik, apurtito bat gelditzen da.

eta erdiratu ziren harroak. Eta hobiak idehi ziren,  
 eta hilak ziren saiandu hainitzzen gorputzak piztu.  
 Eta hobiatarik ateraturik, Jesus piztu ondoan,  
 ethorri ziren hiri saindurat, eta askori agertu.  
 Kaputaina aldi eta horekin Jesusen zaint zago-  
 tzinak, ikusirik lur ikhara eta gertatu ziren gur-  
 ziak, hainitz izitu ziren, eta zioten: Egiazki  
 Jinkoaren semea zen hori. Bada han zagotzin  
 urrundik emazte multzu bat, Galileatik Jesu-  
 jarraiki zitzaizkonak, haren zerbitzatzeko. Hei-  
 en artean ziren Maria Madalena, eta Maria  
 Jakoboen ama, eta Josepen ama, eta Lebede-  
 ren umen ama. Bada arrats irian, ethorri zen  
 Arimatiako gizon aberats bat Josep deitua, han  
 ere Jesusen diripalu baitzen. Joan zitzaion  
 Pilatusi, eta galdegin zion Jesusen gorputza.  
 Eta gorputza harturik, Josepek inguratu zuen  
 mihise churi batean. Eta amildu zuen harri  
 handi bat hobiaren ahorat, eta joan zen. Bada  
 han ziren Maria Madalena, eta bertze Maria,  
 hobiaren aldean jarriak.

Nihil obstat

Baiona die 19 Maji 1941

A. Larralde

Censor

Imprimatur

Baiona die 19 Maji 1941

P. Daguano *ppm.*  
M. G. G.

